

hh
hik hasi

Arberoa ikastola
Garapen Pertsonala
Ane Ablanadori elkarrizketa
Alexander teknika
'Mindfulness'-a eta hezkuntza
Euskal Girotze Barnetegiak
Pello Añorga



UDAKO TOPAKETAK




Espazioaren esplorazioaren historia

Gizakiaren eta zeruaren abentura handia ipuin antzera kontatua dokumental zoragarri batean.

Espazioa eta basoa ezagutzeko liburuak

BASOKO LIBURU HANDIA

Basoari eta naturari buruzko gauza interesgarriak jasotzen dituen liburua. Argazki ederrekin eta jolas egiteko marrazkiekin.



AURKIBIDEA

GAIA 1 / 9

ARBEROA IKASTOLA

Ongizate nahiak egiten du berezi Donamartiriko Arberoa ikastola, helburu hori egunerokoan gauzatzen baitute, Komunikazio Ez Bortitzaren bitartez. 2.008an sortu zen ikastola, Donamartirin, Benafarroko herri txiki batean, lau ikaslerekin eta irakasle batekin, Seaskaren baitan. Gaur egun 71 haur (40 familietarik), bost irakasle, hiru laguntzaile eta laguntzaile berezitu bat biltzen ditu ikastolak.

GAIA 2 / 13

GARAPEN PERTSONALA

'Garapen pertsonala irakasleentzat. Haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun' izeneko ikastaroa eskainiko dute Elen Kortaxarena biodantzako irakasleak eta Jokin Beristain psikoterapeutak. Biosintesiaren eta biodantzaren bitartez, norbere buruaren lanketa egiteko aukera emango diete partaideei.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK.

TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ;

www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa:

hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua:

SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi,

Ainara Gorostitxu eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna,

Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua,

Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola,

Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran,

Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria,

Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2017-06-13).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Irizpide pedagogikoak behar dira hezkuntzan, ez inprobisaziorik

6 ALBISTEAK

19 ELKARRIZKETA

ANE ABLANEDO

"Haurrekin egotea bizitzaren lokatzetan egunero sartzea bezala da"

27 EKARPENAK 1

Alexander teknika

31 EKARPENAK 2

'Mindfulness'-a eta hezkuntza

35 EKARPENAK 3

Euskal Giroitze Barnetegiak

38 GALDEIDAZU

Zer ahozko baliabide ditu irakasleak eskura haur-literatura lantzeko?

Yolanda Arrieta

41 ATZEKO ATETIK

Pello Añorga

IZEI eta HODEI

Zatikiak

$$\frac{1}{8}$$
$$\frac{152}{6} =$$



78

$$130 : 2 =$$

$$\frac{7}{4}$$



Irizpide pedagogikoak behar dira hezkuntzan, ez inprobisaziorik

editoriala

Badakigu. Aspertu arte entzun dugu eta irakurri eta geuk idatzi ere bai. Esperientziak erakutsi du, zientziak berretsi, PISAk ere bai, nahi bada. Lehen urteak dira garrantzitsuenak, pertsona baten lehen urteetan ezartzen dira zutabeak; sendoak, seguruak edo ahulak, intseguruak. Finlandian ikusi berri dugu, haurtzaroan inbertitzea gizartean inbertitzeko modurik bikainena da. Dirutan ere bai. Haur-eskolan eta Haur eta Lehen Hezkuntzan inbertitzen diren euroak dira emankorrenak. Baina dirutik harago, osasun, hezkuntza eta gizarte inbertsiorik onena da haurtzaroan inbertitzea, prebenitzea da haurrak ondo haztea. Eta heztea.

Eta haurrak ondo hezteko zer behar da? Baliabideak, esango du batek. Ingurune egoki bat, besteak. Segurtasuna, atxikimendua, zaintza, maitasuna, askatasuna, mugak... eta bereziki ondoan duen helduaren arreta.

Eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak nola bermatuko du haur-eskoletan dauden hurrek heldu arretatsuak izango dituztela? Arduratsuak, osoak, formatuak...? Bada Eibarrera, Haurreskolak partzuergoaren atarira garaiz iristearekin.

2011ko urriaz geroztik Haurreskolak partzuergoko zerrendak itxita egon dira, eta bat-batean, ekainaren 14an zabaldu egin zituen zerrendak,

“urgentziaz”, hurrengo egunean ixteko, “bestelako erabakirik hartu arte”. Zerrenda horretan dauden hezitzaileak izango dira haur txikiekin, bost hilabeteko hurrekin, zazpikoekin, 12koekin, 18koekin egongo direnak. Eta zeri, eta zerrendan apuntatzeko hurrenkerari emango dio lehentasuna Hezkuntza Sailak, ez merituei, esperientziari, curriculumari, formazioari... Sei urtez zerrendan sartzeko aukera izan ez duten ehunka eta ehunka hezitzailek —Unibertsitateko tituludanak nahiz Lanbide Heziketako tituludunak— zerrendan sartzeko aukerarik gabe egon ondoren, bat-batean, inprobisatuz sartu ditu zakura. Uztaila osatzeko neurria izango da —datorren ikasturtean baremazioa egingo du partzuergoak—, baina esanguratsua da. Kezka-garria. Ez da serioa. Aurreikuspen falta erakusten du. Ez dago besterik.

Oharra egin beharra izan du Hezkuntza Sailak: Legezkoa da. Legezkoa izango da, baina ez da zilegia.

Hezkuntzaren kalitatea bermatu nahi bada, ezin da inprobisatu. Ezin da haurren beharrekin, ongizatearekin, hezkuntzarekin, bizitzarekin, inprobisatu. Ezta lan egiteko gogoz, beharrez dauden hezitzaileekin ere. Ez da serioa.


Irizpide pedagogikoak behar dira hezkuntzan, ez inprobisaziorik.

Noemi Beneitoren omenez

Psikomotrizista eta hezitzaile argentinarra ekain hasiera honetan hil da; hik hasiri hitzok utzi zizkion:

"Haurtzaroan inbertitu egin behar da, gizartearen obligazioa delako; gainera, gaur inbertitzen den dirua biharko egunean aurrezten dena izango da".

Noemi Beneito.



HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

NAFARROAK ORDEZKO 2.300 IRAKASLE BOTA DITU LISTETATIK, GEHIENAK INOIZ ARITU GABEAK

Ordezkoen zerrendetan zeuden 2.271 irakasle kendu egingo ditu Nafarroako Gobernuak, ez dutelako eskatutako prestakuntzarik. Bigarren Hezkuntzako irakasleei eragiten die erabakiak: legearen arabera, irakasle aritzeko, masterra behar da Bigarren Hezkuntzan —salbuespena: 2008-2009ko ikasturtea baino lehen hamabi hilabetez irakasle aritu direnek ez dute masterra behar—. Kontua da Nafarroan ordezkoen zerrendan egoteko ez dutela masterra eskatu orain arte. Gobernuak, «hainbat abisuren ondoren», iaz jakinarazi zuen 2017-2018ko ikasturtetik aurrera ezinbestekoa izango zela masterra. 2.951 irakasle zeuden zerrendetan titulu hori gabe. Haietatik 2.271k ez dute aurkeztu prestakuntza ziurtagiririk, eta, beraz, listatik kanpo utziko dituzte. Gehienek ez dute inoiz jardun eskola publikoan, eta 11 ari dira aurtengo ikasturte osoan lanean.

LOE Espainiako hezkuntza legean du oinarria erabakiak. Arau hori 2006tik dago indarrean, eta zera dio irakasleen prestakuntzaz: «heziketa pedagogiko eta didaktikoa» eduki behar dutela. Haur eta Lehen Hezkuntzan, Irakasletza karreraren jasotzen dute heziketa hori, baina, Bigarren Hezkuntzaren kasuan, gaitasun master bat egin behar dute. Oposizioetara aurkezteko, adibidez, nahitaezko baldintza da masterra izatea.

SEI URTEREN ONDOREN HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ZERRENDAK IREKI DITUZTE, BAT-BATEAN



Ordezkoen zerrenda agortu egin delako, presaz, Haurreskolak partzuergoan lan egiteko zerrendak ireki ziren ekainaren 14an, eta hurrengo egunean itxi zituzten. Izena emateko aukera goizez bakarrik izan zuten hezitzaileek, eta zerrendetan apuntatutako hurrenkeraren arabera deituko diete lanerako uztailan, ez da beraz hautagaien curriculumak kontuan izango. Sei urtez itxita eduki dituzte partzuergoko zerrendak, 2011ko urritik, eta beraz, urtetoan guztietan titulu lortu dutenek —Unibertsitatean edo Lanbide Heziketan ehunka eta ehunka hezitzailek lortu dute— ez dute aukerarik izan partzuergoan ordezkoen listan sartzeko. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kolpetik ireki zituen zerrendak, "hutsuenak bete ezinda". Antza, ordezkoen zerrendan 500 lagun zeuden artean deitu gabe, baina haietatik hogeit hamar bakarrik azaldu dira ordezkapen bat egiteko prest. Jaurlaritzak "urgentziazko neurritzat" hartu du.

INSTITUTU BATEK SALATU DU ERDARAZ EGINARAZI DIETELA LEGEBILTZARREKO ERTZAINEK

'En castellano por favor' erantzun zieten Lekeitioko institutu bateko ikasleei Legebiltzarreko atariko ertzainek bisitara joan zirenean. Eusko Legebiltzarrerara gutun bat bidali dute institututik, arazoak salatzen. «Bisitari hasiera emateko nahian, sarreran dagoen bulegoan zeuden ertzain birengana abiatu ginen. 'Egun on, Lekeitioko institututik gatoz...' esan orduko, eurretari batek 'En castellano por favor' erantzun zigun». Erdaraz aritu behar izan zuten, «harrituta eta deseroso». Parlamentuak gutuna bidaliko die barkamen eske.

HIZPIDE IZANGO DA

BOST IKASLETIK BATEK ESKOLAN JAZARPENA JASATEN DU; GORA EGIN DU DATUAK

Ikasle gehiagok adierazi dute eskolako jazarpena jasaten dutela: bostetik batek. Ikerketa bat egin du ISEI Irakats-Sistema Ebaluatu eta Ikertze-ko erakundeak, eta aurreko urteetan baino ikasle gehiagok esan dute bullying-aren biktima direla askotan: Lehen Hezkuntzan, %23k; DBHn, %19k. Joera bat sumatu dute: zenbat eta gazteago, gehiagok diote erasoak jasaten dituztela. Nola erantzuten duten, badago aldea hor ere: Lehen Hezkuntzan, erasoak jasaten dituzten gehienek familian ematen dute horren berri (%78), eta gero, lagunei (%63); DBHn, lagunena da lehen heldulekua (%69), eta gero dator familia (%53). Askoz ere gutxiagok jotzen dute irakasleengana.

Ahozko erasoak dira ohikoenak: irain egitea, biktimaz gaizki hitz egitea eta horrelakoak. Txostenean nabarmendu dute tentuz jokatu behar dela harelakoekin, pisua kendu ohi baitzaie. Aldian-aldean egiten du ikerketa ISEIk eskolako jazarpenari buruz. 2005ean egin zuten lehena, eta bosgarrena atzo aurkeztu zuten. Gorakada ageri da, baina, adituen arabera, horrek ez du esan nahi eskoletan indarkeria gehiago dagoenik. «Indize orokorra gora joatearen arrazoia izan daiteke tratu txarrek gero eta ikusgarritasun handiagoa izatea gizartean». Ohartarazi dute ikasleekin eginiko inkesta bat duela ikerketak oinarri —13.600 ikaslerena—, ez direla kasu egiazta- tuak.

TALDEA OSATU DA ETA REGGIO EMILIARA JOANGO DA IRAKASLE TALDE BAT HIK HASI-REKIN, URRIAN

Hezkuntza-proiektu eta sistema interesgarriak bertatik bertara ezagutzeko asmoz, hik hasi egitasmo pedagogikoak hainbat bidaia pedagogiko antolatu ditu urteotan, aurrean bertan Finlandian izan da irakasle batek hango hezkuntza-sistema ezagutzeko, eta iaiz berriz, Estonian. Udazken honetan beste talde bat Italiako Reggio Emiliako hirian garatzen ari diren hezkuntza-proposamen interesgarria ezagutzera joango da. Urriaren 10etik 14ra egingo da bidaia. 0-3ko habiak eta 3-6 urte bitartekoen zentroak ezagutzeko aukera izango da. 3-11 urte bitartekoen Loris Malaguzzi eskola ere bisitatuko da. Bidaian parte hartzeko izen-emate aukera zabalik dago plazak bete arte. Informazio gehiagorako eta izena emateko www.hikhasi.eus webgunean.



NAZIOARTEKO HEZKUNTZA KONFERENTZIA EGINGO DU EH BILDU-K IRAILAREN 22AN

EH Bildu koalizioa barne duen GUE/NGL Europako ezker unitarioko taldeak Europako hezkuntza-sistemak ezagutzeko nazioarteko konferentzia bat egingo du Donostiako Zuatzu parkean, Iratzarri aretoan, irailaren 22an. Bertan, Finlandia, Danimarka, Suedia eta Herbeheretako hezkuntza adituek herrialde bakoitzeko sistemaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Aforoa mugatua da, eta izena eman behar da —doan— hezkuntzakonferentzia@ehbildu.eus helbidean.



Ikastola berezia da Donamartiriko Arberoa. Berezia gutxi direlako hain lotuak bizitzari, hain lotuak plazerari, hain estuki lotuak haurrari. Ongizatea du helburu Arberoa ikastolak, haurren ongizatea, familien ongizata eta bertako langileen ongizatea. Horretarako, Marshall Rosenbergekek garatutako Komunikazio Ez Bortitza ari dira esperimentatzen, ikasleekin, irakasleen artean eta ikastolako familiekin. Ongizate nahiaz gain, euskara eta euskalduntasuna eta ingurumenaren ezagutza eta errespetua dira Seaskako ikastolaren ardatzak.

GAIA 1:

ARBEROA

IKASTOLA

Komunikazio Ez Bortitza bizitzen

2008an sortu zen ikastola, Donamartirin, Benafarroko herri txiki batean, lau ikaslerekin eta irakasle batekin, Seaskaren baitan. Gaur egun 71 haur (40 familiatarik), bost irakasle, hiru laguntzaile eta laguntzaile berezitu bat biltzen ditu ikastolak. Haurrak inguruko bospasei herrietarik heldu dira, eta mementuko, eraikuntza prefabrikatuetan ari dira eskolak ematen, baina laster ikastola berria eraikitzekoa dute, gaur egun dauden lekuan berean.

“Hastapenetik gure asmoa izan da ikastolako aktore ezberdinekin sortzea gure ikastola, bakoitzari hitza emanez eta egiten zena hauei egokituz”, Maialen Etxart ikastolako zuzendari eta gurasoaren hitzak dira, Hik Hasi egitasmo pedagogikoak Oinherriren baitan antolaturiko *Herri Hezitzailea, eskola herritarrak* jardunaldietan parte hartu zutenekoak. 2008tik gaur arte, ibilbideak eta guraso, irakasle eta langileekin egindako elkarlanak Arberoa ikastolaren proiektua hiru ardatz nagusitan finkatzera eraman du lan taldea:

- euskara eta euskalduntasuna
- ingurumenaren ezagutza eta errespetua
- ongizate nahia

Ongizate nahiak egiten du berezi Arberoa ikastola, helburu hori egunerokoan gauzatzen baitute, Komunikazio Ez Bortitzaren bitartez. Marshall Rosenberg (AEB, 1934-2015) psikologo, mediatzaile eta irakasleak iragan mendean gaurtik harremanetarako erudia da Komunikazio Ez Bortitza, eta hain zuzen ere, ongizatea du helburu nagusi, norberarentzat ongizatea, baina, baita bestearentzat eta besteentzat ongizatea ere. “Helburua epe luze eta zabalerat delarik mundu baketsu eta zorionsu bat denen artean eraikitzea”, Kattalin Aizkorretaren hitzetan. Arberoako irakasleak zehazten du,



Arberoa ikastola bere hezkuntza-proiektua ezagutarazteko film dokumental bat ari da grabatzen. Argazkian Joana Aurrekoetxea, Amaia Bidegain eta Maialen Etxart irakasleak grabeketa egunean.

ordea, mundu baketsu batez mintzo direnean, KEBren ikuspegitik ez direla gatazkarik gabeko munduaz ari, “baizik eta gatazkak molde baketsuan eraldatzen direla”. Baita, beraz, ikastolako proiektuan ere.

Paradigma aldaketa bat proposatzen du Komunikazio Ez Bortitzak, hasteko gonbidatzen gaitu hain zabaldua dagoen epaitik, hau da, “gaizki/ongi ereduak” urruntzea, eta gertakariak ikuspegi neutro batekin ikusten saiatzea. “Ondotik begiratzerat zer eragiten duten gudan, nola sentitzen garen, arras ezberdina izanen baita pertsona batetik bestera, eta une batetik bestera. Gero ulertzen ahalko dugu zertan hunkiak izan garen, zer balore garrantzitsu, zer behar hunki duten gudan”. Azkenik, Komunikazio Ez Bortitza erudian, eskaera bat egingo diogu bai gure buruari eta baita besteari ere,

GAIA 1: ARBEROA IKASTOLA

Komunikazio Ez Bortitza bizitzen

“zerbait galdegiten ahalko diogu gure bizia eta bestearen bizia ederrago izaiteko”.

KEBan Marshall Rosenbergekin abereak erabiltzen ditu gizakion emozioak, sentimenduak eta bestelako konzeptuak ulertarazteko, esate baterako, jirafa litzateke bere sentimentu eta beharrekinekin konektatua dagoen animalia, eta otsoa, berriz, besteari leporatzen dizkiona bere arazoak, iraintzen duena eta bortizkeria erabiltzen duena. Arberoako irakasleek azaldu dutenez, “gure baitan daude biak eta garatzen da elikatzen duguna”. Jirafaren eta otsoaren alegoriak, ulertzeko hain erraza den paradigma berri honek barneratzeko denbora hartzen du, eta urratsez urrats ikasten da, “KEB bizi filosofia bat baita”.

Hain zuzen ere Hik Hasik antolatutako udako topaketetan, *Donamartiriko Arberoa ikastola komunikazio ez-bortitza esperimentatzen* izenburupean, Rosenbergen komunikazio-eredua ikastolan nola gauzatzen duten azalduko dute, egunean egunean, haurrekinekin, familiarekin, irakaslearen artean nola elikatzen duten irakatsiko dute, Leioan. “Ikastolan garrantzitsua iduritzen zaigu haurrak zoriontsu izatea, entzunak izatea, errespetatuak izatea, etab... molde berean ikastolan garen guztien ongizatea nahi dugu, irakasle eta laguntzaileena, ahanzi gabe gurasoena”. Baina, nola bermatu hori guzti hori? “Elkarrekin ikasiz eta elkarrekin praktikatu”, azaldu du Etxartek.

Irakasleak ez ezik, ikastolako parte diren familiak ere KEB formazioa egiten ari dira. Irakasleak hilabetero elkartzen

dira hiruzpalau orduz, KEB praktikatzeko, "eguneroko egoerak argitzeko, zailtasunak aipatzeko, elkar eskertzeko eta aitzina egiteko elkarrekin". Horrez gain, gurasoak ere elkartzen dira familia multzoka, autokudeatuak diren talde batzuetan. Eta biolentziarik gabeko komunikazio-eredu honen hirugarren hanka haurrak dira, haurrekinekin komunikazio ez bortitza biziz, erabiliz eta lantzeaz gain, KEB espresuki irakasten diete.

Besteak beste, honako tresna hauek baliatzen dituzte KEB praktikatzeko:

-**Elkarbizitza saioak**. Astero egiten dituzte, gehienetan ipuin bat lagun, gai ezberdinak aipatzen dituzte, adibidez, errespetua, askatasuna, kexua, konfiantza

-**Sentimenduen txokoa**. Gela bakoitzean mahai bat dute hainbat euskarrarekin: sentimenduak adierazteko irudiekin, sentimenduen ortzadarrarekin, beharren zuhaitza, kezka-muxelak, etab... eta haurrak edozein unetan joaten ahal dira mahai horretara, jarri, karta batzuk aukeratu, marraztu, idatzi... helburua delarik haien burua argitzea eta hobeki sentitzea.

-**Biltzarrak**. Dominic Barterrek 90eko hamarkadaz geroztik Brasilen praktikatu zituen biltzar borobilak esperimentatzen dituzte Arberoan. Elkar entzutea da biltzar borobil horien funtsa. Biltzarretan, batzuetan, arazorik gabe joan bada astea, eskerrak ematen dira eta aitzina segitzeko indarrak ematen dizkiote elkarri. Halaber, ostiraleko biltzarrak baliatzen dira ikastolako arauak elkarrekin erabakitzeke.

-**Gaizkirik ez denez**, Arberoan ez dago zigorrik.

Egun bat Arberoa ikastolan:

Eguna harrera momentuarekin hasten dute, plazerezko joko bat egiten dute lehenik haur guztiek elkarrekin, goxotasunean hasteko, taldeari lotzeko eta giroan sartzeko. Jarraian, arreta lortzeko ariketak egiten dituzte, yoga, arnaske-ta-ariketak, mandala margotzea... eta, azkenik, bakoitzaren “eguraldiarekin” bukatzen dute, haurrek eta helduek nola sentitzen diren azaltzen dute, gorputzez, bihotzez eta buruz. Eta egunean zehar halakorik errepikatzeko beharrik sentituz gero, berriro ematen dute norberaren eguraldiaren berri.

Egunean zehar sor litezkeen gatazkatxoak konpontzeko artekaritza egiten dute. Horretarako gela bakoitzean artekariak dituzte, asterik aste aldatzen direnak. Artekaritza horiek haurren artean egiten dituzte, eta zailtasun bat izanez gero, heldu baten laguntza eskatzen dute. Artekaritza KEBren oinarrien arabera egiten da, lau urratsetan: bakoitzari galdatzen zaio zer gertatu den, nola sentitzen den, zeren beharra duen eta zer eskatu nahi duen. Horretarako, lehenik eta behin segurtatzen dute bi aldeak, gatazka izan duten bi haurrak, prest direla hitz egiteko, haien baitan badutela gogoia, indarra eta denbora, “bestenaz nahiago dugu luzatu





eta beste mementu batez egin”.

Hautu pedagogikoa:

Ikastolako kide guztien ongizate nahia ikastolaren egitasmoaren erdigunera ekartzeak lan-moldean zeharo eragin du Arberoan. Irakasteko eta ikasteko moldeak egokitzeko eta aldatzeko beharra izan dute irakasle, ikasle eta gurasoek. Honako hautu pedagogiko hauek egin dituzte, KEBren alboondorio gisa:

-Gaur egun proiektuka lan egiten dute. Proiektuen gaiak hurrekin, gurasoekin eta irakasleen artean erabakitzen dituzte, eta ikastola barnean nola kanpoan eginiko ekintzei txertatzen zaizkie. Proiektuka lan egiteak ikasleen motibazioa pizten duela ikusi dute. Ondotik, proiektu bakoitzaren amaieran, erakusketa, aurkezpen edo ikusgarri bat eskaintzen da. Ondorioz urte osoan ikastolan antzerkia, dantza, artea eta kantuak leku berezia dute. Horrez gain, ikastolako gurasoek txaranga bat sortu dute eta haiek ere parte hartzen dute.

-Pedagogia ezberdindua. Haur bakoitza bakana eta errepikaezina dela kontuan izanik, ikasteko modua ere bakoitzak berea duela oso presente dute Donamartiriko ikastolan. Saiatzen dira, beraz, haur bakoitzaren erritmoa errespetatzen, eta haurraren beharretara egokitzen, bakoitzak behar duen eran irakatsiz. Saioak antolatzen dituzte haurren euren gaitasun eta interesen arabera ikas dezaten.

-Horrekin batera, adinak nahasiak dira. Ikas-prozesuan malgutasun handiagoko jokatzeko, eta helburuak adin jakin

bati ez mugatzeko, hainbat adinetako haurrak elkartzen dira gela bakoitzean. Haur txikienekin, ama ikastolan ere, bakoitzaren erritmoari egokitzea garrantzitsua ikusten dute Arberoan. Laguntzeko, irakasleek gogo erabilketa ikasten dute, ikasleak ahal bezainbat laguntzeko haien ikasmoldeak eta ikas-prozesuak ulertzen eta hobetzen.

-Montessori pedagogia inspirazio iturri izan dute. Haurraren autonomia segurtatzeko, gelan, haur bakoitzak nahi duena ikas dezan aukera dauka, material anitz eta zabalari esker. Halaber, ikastolan haurrak libre dira nahi dutelarik edateko, komunera joateko. Jangela ere irizpide horien arabera antolatu dute, haurrak autonomo izan daitezten.

-Kooperazioa. Haurra garrantzitsua da baina baita kolektiboa ere. Bakarka ikasteko aukera dute, baina baita taldean ere. Elkar laguntza eta kooperazioa bultzatzen dituzte.

-Ingurumena. Ikastola herri ttipi batean kokatua denez, belardiz, oihanez eta erreka inguratua dago eta aukera paregabe hori baliatzen dute haurrek ingurumena ezagut dezaten eta errespetatzen ikas dezaten.

-Hezkuntza taldea. Irakasleez gain, gurasoak ere hezkuntza taldeko partaide dira, eta presentzia handia dute ikastolaren eguneroko bizitzan. Bazkal ondoko jardueretan parte hartzen dute, egiten dakitena edo maite dutena partekatuz, izan arte martzialak, dantza, musika, jostea, baratzea, pilota... Horrez gain, irakasle guztiak partaide bezala arduradun dira, norbere gaitasunekin eta beharrek, esate baterako, langileek haien ordutegiak haien beharren arabera moldatzen dituzte.



'Garapen pertsonala irakasleentzat. Haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun' izeneko ikastaroa eskainiko dute Elen Kortaxarena biodantzako irakasleak eta Jokin Beristain psikoterapeutak Donostian, Hik Hasiren Udako Ikastaroetan. Biosintesiaren eta biodantzaren bitartez, norbere buruaren lanketa egiteko aukera emango diete partaideei, hala eguneroko eskolako jardunean, hurrekin zein gazteekin askoz ere bidelagun osasuntsuagoak izan daitezten. Bizipenetan oinarritutako ikastaroa izango da, eta bertan egindako jarduera eta ariketak klasean ikasleekin aplikatzeko modukoak izango dira.

GAIA 2:

GARAPEN

PERTSONALA

Norbere burua lantzen,
ikasleen ahalduntzean laguntzeko

Nola nago? Zer ari naiz bizitzen? Bizitzako zein momentutan nago? Zergatik gertatzen zaizkit gertatzen zaizkidanak? Zeintzuk dira nire funtzionatzeko patroiak? Non katigatzen naiz? Zerekin sufritzen dut? Zeintzuk dira nire alde osasuntsuak? Irakaslea bera eta haren funtzionatzeko modua izango du ardatz Elen Kortaxarena biodantzako irakasleak eta Jokin Beristain psikoterapeutak emango duten ikastaroak: ***Garapen pertsonala irakasleentzat. Haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun.*** Izan ere, Kortaxarenak azaltzen duen moduan, irakasleen formazioan hainbat materia ematen dira, hamaika dinamika eta metodologia erakusten dira, baina non geratzen da norberaren garapen pertsonala? Alegia, minutu batzuetan bederen norbere barrura begiratzeko parada eskaintzea? Hain zuzen ere horixe da bi adituok Udako Topaketetan egingo dutena: “Geure buruak landuko ditugu, geure funtzionatzeko moduez eta jokabideez jabetzeko, eta hor jorratutakoa, gero, geure egunerokora eramanez ahal izateko, hala haurrekin zein gazteekin askoz ere bidelagun osasuntsuagoak izango baikara”.

Ikastaroa emateko funts batean oinarritzen dira Kortaxarena eta Beristain: irakasle izan aurretik pertsonak garelak, pertsonak garenez, sentitu egiten dugula, eta beraz, emozio horiekin guztiekin goazela klaseak ematera. Ikasgelan, pertsonen arteko elkarreaginean, emozio horiek guztiak sartzen dira jokoan. “Interakzio horretan emozioen bat ataskatuta baldin badago gaizki eramaten garelako norbai-

tekin, blokeoren bat dagoelako, ez zaidalako ikasle baten izaera gustatzen... nire mezua ikasleei ez zaie garbi iritsiko, gainkarga batekin baizik; eta nire energia klasea emateko baliatu ordez, blokeo horietatik ateratzen saiatzeko gastatuko dut”, argitzen du Beristainek. Horrexegatik, biodantza eta psikoterapia erabiliz norbere barrura bidaia egiteko proposamena egiten dute bi irakasleek, aztertzeko zer den norberari ikasgelan zaila egiten zaiona, ikertzeko beste pertsonekin harremanean non sortzen zaizkion blokeoak, zein jenderekin kostatzen zaion erlazionatzea bestearen izaera norberarenarekin bat ez datorrelako...

Irakasleak irakasle izan aurretik pertsona diren bezalaxe, irakasleak ere ikasle izan aurretik pertsonak dira, emozioak dituzten pertsonak. Beraz, ikastaroan norbere buruaren lanketa egiteaz gain — bere historia eta bilakaera pertsonala ulertzeko eta ikusteko nola heldu den gaur egun dena izatera —, ikasleei ere begiratzen diete, konturatzeko horiek ere euren historiarekin doazela ikasgelara, beren familiako sinesmenekin, bere izaerarekin, blokeoekin... Eta hain zuzen ere, Kortaxarenak eta Beristainek dioten moduan, sarri, irakasleek irakasleei ispilu lanak egiten dizkiete: irakasleentzat, normalki, euren gatazka berberak bizi dituzten irakasleak izan ohi dira konfliktiboan eta gelako “arazoan” eragileentzat hartzen direnak.

Irakasle autoritario baten adibidea jartzen du Beristainek: “Irakasle bat autoritarioa bada, klasean dauden ikasle autoritarioekin txoke egingo du eta hor konfliktua sortuko da.

GAIA 2: GARAPEN PERTSONALA IRAKASLEENTZAT

Haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun

Gerta liteke ikasleek irakasle horri klasea saboteatzea eta irakasle hori irakasgairik eman ezinik geratzea, haren energia klasea ematera bideratuta egon beharrean, ikasleengandik defendatzeko ahaleaginean zentratuta dagoelako. Hortaz, irakasle hori bere errekurtsioak alperrik galtzen ariko da. Aldiz, irakasle horrek autoritarismoa bere zailtasun bat dela baldin badaki, ikasle autoritario horiei ahalbidetu egingo die haien autoritarismoa ateratzea modu osasuntsu eta organiko batean, eta hartara, klasea eman ahalko du. Gainera, irakasleak klasean interferitzen ez duenez, onartua sentituko da eta horrek ikasleengana gerturatzea ahalbidetuko dio. Baina, noski, horrek umiltasuna eskatzen du, lehenik norbere barrura begiratzea eta norberari zer gertatzen ari zaion detektatzea exijitzen duelako”. Lanketa horretarako guztirako bi ildotan oinarritzen dira Kortaxarena eta Beristain: biosintesian batetik, eta biodantzaz, bestetik.

Biosintesia, ardatzetako bat

Jatorria Sigmund Freuden psikoanalisian duen psikoterapia mota bat da biosintesia. Gerora, Wilhelm Reich edota Alexander Lowenek garatu zuten Freudek hasitakoa, eta

hastapenean oso mentala eta kognitiboa zen hura gorputzera ekartzen joan ziren. Hortaz, biosintesiaren oinarri teorikoa oso psikologikoa da, baina gorputzera integratuta dago. “Adibide bat jarriko dut: pentsa gidabaimena atera behar duzula eta teorikoa gainditu duzula. Beraz, badakizu bolantea zer den, zein pedal erabili behar duzun zertarako, badakizu kanbioak non dauden... baina sartzen zara kotxean eta ez zara gai manciatzeko. Hezkuntzan ere antzeko zerbait gerta dakiguke. Adimenetik soilik ikasten ditugunean gauzak, gero, askotan, ahaztu egiten zaizkigu. Beraz, ikasitako hori gorputzean txertatu behar da eta gorputzetik pasatzeak intentsitate maila jakin bat eskatzen du, tentsio bat...”, azaltzen du Beristainek. Kortaxarenak erantzen duenez, oinarri teoriko horrek irakasle bakoitzari lagunduko dio ulertzen zein izaera mota sortu duen bere bizitzan zehar eta zergatik funtzionatzen duen funtzionatzen duen bezala. Batzuetan, ordea, biodantzako irakasleak erantzen duenez, izaera horrek bizitzan aurrera egiteko trabak jartzen dizkio pertsonari, askotan pertsonak bizitzan sentitzen duena eta egiten duena ez daudelako koherentzian. “Gerta liteke pertsonok izaera baten mende egotea. Biosintesiko marko





Elen Kortaxarena biodantzako irakaslea eta Jokin Beristain psikoterapeuta.

teorikoak izaera hau nola sortu dugun ulertzen laguntzen digu eta baita horretatik askatzen ere, bizitza askoz ere errealagoa, koherenteagoa eta kontzienteagoa bizi dezagun. Pailazok dioten bezalaxe, *Sentitu, Pentsatu, Ekin!* da guk aldarrikatzen dugun bidea”.

Aurrera egiteko pertsonak duen zailtasunik handiena sentitzeko beldurra da, Beristainen hitzetan, eta barruan duen hori ez sentitzearen hasi ohi da gizakia egin eta egin, barruko hutsuneak tapatuz. Adibide bat jartzen du: “Nik bakarrik sentitzeko beldurra baldin badaukat, beti egongo naiz baten baten ondoan. Baina baliteke berarekin egotea ez berarekin egon nahi dudalako, baizik eta bakarrik egon nahi ez dudalako”. Hain zuzen ere, Beristainen arabera, pertsonak bere izaera sortzen du barruan dituen eta sentitu nahi ez dituen emozio horietatik babesteko. “Aurrez jarritako jarrera autoritarioaren etsenpluarekin jarraitzeko, demagun ni oso familia autoritario eta gogor batean jaio naizela. Kasu horretan, ezinbestean, umetatik jarrera autoritario eta gogorra eraiki behar izan dut nik ere, zapaldua ez izateko. Txikitan izaera hori sortu izanak zentzua izan dezake, bizi-raupen arrazoi batengatik. Baina, urteek aurrera egin ahala, zer gertatzen da? Ni beste ingurune batzuetara noala: eskolara, beste pisukide batzuegana, kalera... eta akaso jada ez daukadala jarrera autoritario hori eduki beharrik espazio horiek gerruak direlako. Hala ere, izaera autoritario hori

horrenbeste intentsitatez daukadanez nire barruan txertatuta, autoritarioa izaten jarraituko dut. Beraz, baliteke neronek sortzea arriskua nire inguruan, eta nire aldameneko denek ere izaera autoritarioa hartzea nigandik babestu nahi dutelako. Sorgin-gurpil batean sartzen gara hala. Horrexegatik, oso garrantzitsua da barrura begiratzea, zeren ni konturatzen banaiz zergatik sortu dudan nire izaera autoritarioa, jada ez dut juzgatuko, ez naiz saiaturiko nire izaera ezkututzen, baizik eta ulertu egingo dut, onartu egingo dut, eta ondorioz, erlaxatu egingo naiz eta orduan bai aldatu ahal izango dut nire izaera. Eta aldaketa horretatik klaseak emateko orduan ikasleekin dudan harremana askoz ere osasuntsuagoa izango da eta lotura hori indartu egingo da”.

Biodantza, beste ardatza

Hitzak berak iradokitzen duen moduan, bizitza eta mugimendua batzen ditu biodantzak, eta biosinesiarekin batera norbere buruaren lanketa egiteko ikastaroko partaideekin darabilten beste zutabea da Kortaxarena eta Beristaintzat. Biodantzaren oinarria da bakoitzak bere bizitzan egiten dituen mugimenduen kontzientzia hartzea. Helburua da norbere gorputzarekin konexio handiagoa lortzea, gorputzera jaisten hastea eta norbere gorputzaren mugimenduak ulertzea: nondik datozen, zergatik egiten dudan hau edota zergatik beste hori... azken batean, norbere funtzionatzeko

GAIA 2: GARAPEN PERTSONALA IRAKASLEENTZAT

Haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun

patroiei begiratzea eskatzen du. Kortaxarenak azaltzen duenez, pertsonak jaiotzen denetik potentzial izugarri dakartza, dena dago pertsonaren barruan, baina bizitzako egoeren eta esperientzien arabera potentzial batzuk indartu egiten diren bezala, beste batzuk zapuztuta geratzen dira: “Adibidez, eduki dudana familiaren arabera, afektua bizitzeko nire modua aberatsagoa edo pobreagoa izango da”. Hala, biodantzaren potentzial guztiak bost lerrotan sailkatzen dira, eta ondokoak dira bost lerro horiek: bitalitatea edo bizitasuna; kreatibitatea edo sortzailetasuna; sexualitatea; afektua; eta transzendentzia. Biodantzak ulertzen du bost lerro horietan dagoela bizitzako mugimendu guztia, eta beraz, bost lerro horiek saretzen saiatzen da.

Azken batean, biosintesiaren zein biodantzaren funtsa berbera da: bizitza eta eraldaketa, hain zuzen. Biodantzak mugimendu proposamen interesgarriak egiten ditu eraldaketarako; biosintesiak berriz, emozioen eta haien jatorriaren ulermenerako giltza ematen du. Horrexegatik, Kortaxarenaren eta Beristainen aburuz, erabat osagarriak dira biak: batean erreminta nagusia gorputza eta mugimendua dira; bestean berriz, emozioak eta haien berbalizazioa.

Kalitatezko harreman-lotura xede

Eskolak emateko orduan berebiziko garrantzia ematen diote binkuloari Kortaxarenak eta Beristainek. Ikaslearen eta irakaslearen arteko lotura osasuntsurik gabe klaserik nekez eman daitekeela argudiatzen dute. Teknologiaren aroan gainera, Internet bidez eskolak erraz asko eman daitezkeenean, are eta garrantzia handiagoa hartzen du binkuloak bi adituen irudiko. Udako Topaketetan emango duten ikastaroaren xedeetako bat lotura osasuntsuak egiten trebatzea izango da, sarri pertsonon arteko harremanak oso bestelakoak izan ohi baitira: “Binkuloarekin lotuta bada historia bat gu denon izaerarekin zerikusia duena. Guk guztiok izaera bat sortu behar izan dugu binkulo batengandik babesteko. Gure lehen lotura amarekin edo aitarekin egindakoa izan da eta sortu dugun izaeraren oinarria lotura horretatik babesteko sortu dugu. Izan ere, lotura hori sortzeko dinamika nagusia zera izan ohi da: ‘Hau egiten baduzu, pertsona ona zara eta hau egiten ez baduzu, ez zara pertsona ona’, edota ‘Bide honetatik baldin bazoaz, nire begirunean daukazu; bide horretatik ez bazoaz, berriz, ez daukazu nire begirunerik’. Beraz, dinamika horietan sortzen den binkuloa ez da osasuntsua, ez gaituelako onartzen. Azken batean, gurasoek haurrak ‘adiestratzen’ dituzte gizarte mota honetan onartuak izan daitezen. Beraz, ez gara gu, baizik eta gara gugandik espero den hori”, esplikatzen du Beristainek.

Kortaxarenak erantzen duenez, Beristainek azaldutako hori da, hain justu, Udako Topaketetan eskainiko duten ikastaroaren giltzarria eta oinarria. Ikastaroaren gakoa delako

irakasleei esperientzia berri eta osasuntsuak eskaintzea euren gorputzetan bizitzeko, binkulo sanoen bidez, “horrela bakarrik hasten garelako osatzen gure historia ez-osasuntsua edo toxikoa eta gure blokeoetatik askatzen. Jokin eta biok autoritatearen lekuan jartzen gara ikastaroan eta modu sinbolikoan aitaren eta amaren papera hartzen dugu, baina autoritate sano batetik parte-hartzaile guztiak onarpenez begiratzen ditugu, eta sentitzen dutena sentitzen dutela ere ongi-etorria izango da. Horrelaxe hasten dira parte-hartzaileak euren historia osatzen edo sanatzen”.

Gainera, biodantzaren marko teorikoan oinarrituz, binkuloa lantzeko hiru maila proposatzen ditu Kortaxarenak: 1. Nik neure buruarekin dudana lotura; 2. Nik zurekin dudana lotura (alegia, beste pertsona batekin intimitatean egiten den binkuloa); eta 3. Nik taldean dudana lotura. “Niretza hori da oinarria. Lehenengoa da garrantzitsua: nola binkulatzen naiz ni neure buruarekin? Zein mezu ematen dizkiot nire buruari? Zein emoziotan ataskatzen naiz?... Garrantzitsua da lehenengo binkulo hori osasuntsua izatea hurrengoetara sano pasatzeko. Gero, dator jada ni nola binkulatzen naizen beste pertsona batekin intimitatean, bikotearekin adibidez edota binaka lan egin behar dugunean; eta azkenik talde osoa sartzen da jokoan”.

Nola eramán hori guztia praktikara?

Esperimentazioan eta bizipenetan oinarrituz ikastea proposatzen dute Kortaxarenak eta Beristainek. Gorputzea kontzeptua darabilte ideia hori azaltzeko, horrek esan nahi baditu pentsamenduak gorputzera ekartzea eta gorputzetik bizitzea. Gorputzezko esperientzia horretatik bakoitzak bere ondorioak atera eta ideia propioak eraiki ahalko dituela defendatzen dute adituek. Hala dio Kortaxarenak: “Nik askotan esan ohi dut irakaskuntza nahiko disoziatiboa dela, alegia, burua lantzen duela eta burutik beherakoa nahiko gutxi. Guk aldarrikatzen duguna da pertsonaren osotasuna ‘pentsatu, sentitu, ekin’ dela eta beraz gure erronka dela





osotasun hori hezkuntzako prozesuetara nola ekarri asma-tzea, ez soilik esatea ‘hau pentsatzen dut’ edo ‘hori sentitzen du’, baizik eta pauso bat harago eman eta hori esperientzian jartzeko aukera eskaintzea. Eta horrek esan nahi du pertsona bere osotasunean hartzea eta zubiak irekitzea burutik beherakoari”.

Eta, zer egin hori guztia geletara eramateko? Kortaxarenak eta Beristainek eskainiko duten ikastaroa teoriko-praktikoa izango denez, gelan erabiltzeko moduko hamaika erreminta ezagutzeko aukera izango dute partaideek, eta gainera, ikastaroan bertan euren gorputzean bizitzekoa. Izan ere, ikastaroan, lehenik, marko teorikoa azalduko dute bi irakasleek, parte-hartzaileek buruak apur bat lasaitzeko eta gero gorputzera jaitea errazagoa izateko. Beraz, hiru egunetan zehar, hainbat dinamika, errekurso eta gorputz ariketa ezagutu eta esperimentatuko dituzte.

Ariketa erraz baten adibidea jartzearen, elkarri begietara begira segundo batzuek egoteko jardueraren etsenplua jartzen du Kortaxarenak. Zirkulu bat eginda, partaideen erdiak barrualdean jar daitezke kanpora begira, eta beste erdiak kanpoaldean barrura begira. Hala, partaide guztiek parean bakarren bat izango dute. Musika jarri eta kontsigna bat ematen zaie parte-hartzaileei: “Isiltasunean egin behar da ariketa. Zirkuluaren barrualdean zaudetenak ez zarete mugituko; kanpoaldekoak berriz, eskuinaldera mugituz joango zarete, eta izango dituzue segundo batzuk pertsona batekin parez pare begietara begira egoteko. Ni joango naiz esaten ‘aldatu!’ eta mugituko zarete eskuinaldera beste pertsona baten parean jarritz”. Kortaxarenaren hitzetan, simplea eman badezake ere, ariketa horrek berak pertsonen barruan eragin dezakeena izugarria da, hitzez esplikatu ezinezkoa. “Pertsona batek begietara begiratzen dizunean eta zuk hari begiratzen diozunean barruan piztu dakizukeen guztia ikaragarria da: tristura, poza, gorrotoa, barregurea, hunkidura... Hortaz, hori dena sentitzen badut beste bati begietara begiratuta soilik, non nago? Zer ari naiz bizitzen? Zer gertatzen zait

beste pertsona bati begietara begiratzen diodanean? Zer ikusten dut beste pertsona horrengan?”. Beristainek gaineratzen duenez, ikasleei begietara begiratzeko gai izatea soilik urrats handi bat da, eta ekintza horrekin soilik gatazka asko ekidin litezke: “Begiak hain dira potenteak... horiek dira gorputzeko atal bakarra norbere esentzia erakusteko gai direna. Zure begietan zu ikusten zaitut, tapatu nahi duzuetik harago, eta zuk ni ikusten nauzu. Eta mugimendu horretan pizten dira nire izaera eraikitze mugitu behar izan ditudan emozio guztiak. Begirada batek pena piztuko dizu, besteak indarra emango dizu, hurrengoak konsistentzia... norbere barruko emozio guztiak ukitzen dira mugimendu horretan. Eta begirada mantentzeko gai izateak, denborarekin begirada horrek piztu duena itzali egiten du, lasaitu egiten zaitu eta gerturatu egiten zaitu pertsona horrengana. Mugimendu horrek balio dezake irakasleek ikasleekin egiteko, baina baita ikasleek euren artean egiteko ere”.

Azken batean, Kortaxarenak eta Beristainek azaldu bezala, xedea da norberaz zerbait ikasteko balio izatea hiru egun horiek, eta gainera, bakoitzak bere ikasgelan aplikatzeko moduko erremintak ezagutzeko aukera ematea. Ikastaroan bizi eta esperimentatutakoaren osagarri, amaieran, egindako jarduera guztien zerrenda bat banatuko diete parte-hartzaileei, ariketa bakoitza esplikatu eta hari dagokion musika ere txertatuz. “Ikasgelara eraman daitezkeen jarduera sinpleak dira guk proposatzen ditugunak”, argitzen dute. Izan ere, haien iritziz, Haur Hezkuntzan, dudarik gabe, prozesu osoa izan behar litzateke bizipenetan oinarritua: manipulazioa, gorputza, mugimendua... Lehen Hezkuntzan alderdi kognitiboaren lanketa eta gorputzarena orekatu egin behar harko litzatekeela diote, baina bizipenetako prozesuek toki handia edukitzen jarraitu behar harko litzatekeela. Eta azkenik, DBHren ere gorputzari tokia egiteko premia handia dagoela aldarrikatzen dute. Izan ere, Kortaxarena eta Beristainen arabera, adin horretan dena da mentala eta gorputzik ez da existitzen, “baina izugarrizko beharra dago”.



“Haurrekin egotea bizitzaren lokatzetan egunero sartzea bezala da”

ELKARRIZKETA:

ANE

ABLANEDO

UNIBERTSITATE IRAKASLEA

ETA PSIKOTERAPIA ETA NEUROSIAREN PREBENTZIOAN ADITUA

Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia

Gizarte osasuntsuago baten mesedetan, hezkuntza-sistema berpentsatu behar dugu. Eta ez soilik hezitzaileek edo hezkuntza-arduradunek. Gizarte osoak. Ane Ablanedoren aburuz, hezkuntza — eta haziera— gai guztiz politikoa baita, etorkizuneko gizakiak fabrikatzen ari garelako. Berak proposatzen duen eredu ez da beste zizelkatze bat. "Umiltasun guztiarekin ikus dezagun zer duen haur horrek erakusteko", eta haur

bakoitzak senez eta naturaz dakarren guztia loratzeko aukera emango diona, horratx eskola on bat. Bitartean, eskola alternatiboen bidea deritzo interesgarri, nahiz eta bera sistemaren barruan egon —DBHko irakasle izan da eta egun Baionako unibertsitateko eta NUPeko irakasle da—. Aurten 'Bizitzaren eskola: Askatasunerako pedagogia' ikastaroa emango du Goiztiriko irakasle eta bidelagunekin.

Gizarte hau gaixo dagoela ikusteak eraman zaitu pertsonak hezteko funtsezkoak diren bi sistema aztertzera: eskola eta familia. Zein zentzutan dago gizartea gaixo?

Mundu honetan hasi nintzen prozesu pertsonal batengatik. Nolabait esateko, neure burua sendatzeko neure bidea bilatu behar izan nuen, eta horretarako pertsonatik abiatu nintzen. Hortik abiatuta halako begirada kritiko bat garatu nuen inguruan gertatzen ziren gauzen gainean, normaltzat hartu arren sanoak ez ziren gauzen inguruan, eta ez luketenak zertan horrela izan. Lehen niretzat normalak ziren gauzak patologikoak zirela konturatu nintzen, nire bizitza eragozten zutelako gauza horiek, eta gero begirada hori ingurura trasladatu nuen. Gainera, garai horretan, Bigarren Hezkuntzako irakaslea nintzen, eta zentzu horretan eskolaren gaineko begirada kritiko zorrotza garatu nuen hor ere.

Zertan ikusten den gizarte honen

gaixotasuna? Kasik denean. Nora begiratzen duzun, ikusten duzu gizarte gaixo bat. Hasteko, ez gara behar bezain zoriontsu, ez gara gustura bizi, ez dugu nahiko genukeen bizitza, ez dakigu ongi maitatzen, ez dakigu maitatuak izaten, auzoekiko mesfidantza handia dugu... gauza asko daude normaltzat hartzen ditugunak baina ez luketenak horrela izan behar, berez. Frogatua dago beste haziera eredu batek beste mota bateko pertsonak ematen dituela, eta beste kultura batzuetan ere beste modu bateko pertsonak hezten direla. Gure mendebaldeko kultura honek haurrak ongi hazten dituen edo ez ikusteko, begiratu behar dugu zer “produktu” ematen duen eredu honek, eta argi dago ez dela sana, badakigulako 0-7 urteak funtsezkoak direla nortasunaren garapenean, eta gure zoritxararren jatorria beraz, haurtzaroan bilatu behar dugula. Beraz, gara dezagun haurtzaro-eredu osasuntsu bat, haurtzaroa ez ezik etorkizuna ere osa-

suntsuagoa izango delako. Goazen haurtzaroa zaintzera, goazen norbanakoa zaintzera, zerbait aldatzekotan iraultza beti norbanakoarena baita. Zergatik egin dute porrot iraultza askok munduan? Ba ez dutelako kontuan izan norbanakoaren ikuspuntua, nolakoak garen aintzat hartu behar da.

Beraz, gure egunerokoan normaltzat hartzen ditugun gauzak ez dira hain normalak. Zuk neurosiarekin lotzen duzu normaltasun hau. Ñabartu zenezake normaltasunaren kontzeptu hau?

Neurosia kontzeptu klinikoa izanik, badirudi ez digula guri eragiten: “Gu normalak gara, ez gara neurotikoak” pentsatzen dugu... Ba nire begiradan, neurosia litzateke normalitate potentzialki patologiko hori. Gure gizartean funtzionatzeko dugun ohiko modua litzateke berez neurotikoa, ez delako sana. Normala da, ohikoa delako, baina ez da sana. Dena ongi



doa, baina bat-batean 'krak', zerbait hautsi egiten da.

Gure gizartearen funtzionamendua neurotikoa da. Adibidez: esaten denean "nik esango nioke hau honi, baina ez naiz ausartzen...edo ez diot esango ez dezan pentsa naizenik ez dakit zer", funtzionamendu ohiko horiek neurotikoa dira, ez dira sanoak, eta horretara ohituak gaude. Gure buruarekin eta inguruarekin neurosia- ren filtrotik pasaturik harremantzen gara.

Hezkuntza-sistema osasungarriago bat bilatzeko irakurketa eta ikerketa-lanera murgildu zara, batetik eskolaren esparruan eta bestetik, familiarenak lirakeen zaintza-urte horien garrantzia azpimarratzera.

Haurrak lau hilabeterekin bidaltzen ditugu haur-eskoletara, eta gainera politikoki eta sozialki iruditzen zaigu eskakizunik aurrerakoiena dela hori denentzat eskatzea. Politikoki ere ez gaude ongi kokatuta.



Gure espeziea harremanean garatzen da, beste heldu batekiko harremanean, gure giza gaitasunak eta gure giza kondizioak taldean garatzen baitira. 0-7 urte horietan, gure inguruan gure zainketaren ardura duten heldu horien kalitateak baldintzatuko du beraz gure garapen prozesuaren kalitatea ere. Orduan, ikusi behar da nolako zaintza-eredua eskaintzen ari gaitzaizkien gizarte bezala haurrei. Gure haziera-heziketa-ereduak haurrarekin erlazionatzeko proposatzen duen modua da zalantzan jarri behar duguna, gogoan izanik eskolaz eta familiaz gain —haurtzaroan ekosistema garrantzitsuenak diren horiek, alegia—, gizartea bera dela hezitzailea, denok baikara hezitzaileak azken finean, haurrak gure herrietan daudelako, parkeetan, karriketan... Gizarte osoaren ardura da nola begiratzen eta zaintzen ditugun haurrak. Nik hori azpimarratu nahi nuke, haziera eta heziketa gauza politikoak direla erabat, ari garelako etorkizuneko gizakiak izanen diren horiek fabrikatzen. "Fabrikatu" diot, badakidan arren oso hitz itsusia dela, heziketaren egitekoa, haurra modelo baten arabera zizelkatzea delako beti. Kontua ez delako, "ni naiz heldua, ni naiz dakiena, eta nik erakutsiko dizut zer egin"; argi geratu baita honezkero direktibitatearen eredu horrekin ez dugula asmatu, begira nora heldu garen, zer drama eraiki dugun, nolako gizarte gaixoa. Gakoa litzateke gehiegizko heziketaren eraginik gabe, zer loratzen den ikusi nahi izatea. *Heziketa* diodanean borondateaz ari naiz, borondate bat dagoenean haurra modu batekoa bilaka dadin dugun borondate horri buruz. Esaten denean, nahi ditugu haur kritikoak, edo haur askeak, edo haur... ez, kontua da ez duzula ezer nahi izan behar haurrarendik. Ez dugu espektatibarik izan behar, izan dezagun konfiantza. Modelo edukatiboa da aldatu behar dena, haurrarekiko begirada. Familiak hazieran eragiten du, eta eskolak heziketan, baina eredia bera da: ez daukagu konfiantzarik haurra berez bilakatuko den horretan, geure buruarekiko konfiantza galdu dugulako. Pentsatzen dugu guk gidatu gabe haurra galdua dela, salbaia izango

"Esaten denean, nahi ditugu haur kritikoak, edo haur askeak, edo haur... ez, kontua da ez duzula ezer nahi izan behar haurrarendik. Ez dugu espektatibarik izan behar, izan dezagun konfiantza"

dela, eta guztiz erraturik gaude. Hor astinaldi bat eman beharko genioke tradizioari. Tradizioz haurra etsai txikitxo bat kontsideratua izan da, utziz gero bizkar gainera igoko zaizuna, salbaia, apetatsua izango dena.

Zure ikusmoldearen arabera, helduak esku hartu gabe, haurra ez litzateke irudikatzen dugun gisakoa izango, autoerregulatu egingo litzateke?

Haurraren proiektatzen dugun ezintasun hori, kanpoko gidaritzarik gabe zeure burua eraiki ahal izatearena, gurearen proiektzio bat da. Zergatik gertatzen da hori? Heziketaren helburua da gertatu dadila guran gure baitarako deskonexio bat; eta horrela, zu jada ez zarenean zure desio, gogo, behar eta abarren ardatz, automatikoki ari zatzaizkio zure askatasuna beste bati ematen opari, halabeharrez beharko duzulako horrezkero beste batek esaten dizuna egin. Uste dut sakon-sakonean hori dela heziketaren helburua, zure erreferentzia beti kanpoan ezar dezazula, kanpotik esan behar izan diezazuten zer egin, nola egin, noiz, zertarako... Nire ustez,

gure barnearekiko konexio berezko hori zaintzea funtsezko gako da. Eman lezake umeak beti egingo duela bere gogoia, baina ez da horrela. Konektatuta egoteak ez garamatza egoztrista izatera, berekoia izatera... baizik eta gauzak begiratu ahal izatera konexio horretatik, bestea ere kontuan izanik, noski. Izan ere, besteak ere kontuan izango ditu baldin eta bera kontuan izan badute. Enpatia hori, elkarbizitzarako bulkada natural hori, sortuko da, hain zuzen ere, baldin eta haur horrekin enpatikoak izan baldin badira.

Beraz, indarrean daukagun haziera- eta hezkuntza-eredu honen arabera, umea gabeziekin hazten dugu, eta etorkizunean, gabezia horiek bilakatu dira helduen hutsune.

Hori da. Haurtzaroa eta gaztaroa biziki garrantzitsuak dira, giza garapenerako horietan dira etaparik garrantzitsuenak, lehenago ere erran dugu. momentu kritikoak dira, loratzeko daudelako gizakiari gerora suposatuko zaizkion gaitasun gehienak. Naturak gure espeziearentzat prestatu dituen gaitasun eta kualitateak garatuko dira, ala ez, haur horrek aurkitzen duen helduaren kalitatearen edo inguruaren arabera. Gure gaitasunetako asko abortatu egiten dira haurtzaroan, edo erdipurdi garatu. Heldutan ditugun zailtasun edota gabezia gehien jatorria haurtzaroa da. Dena den, argitu nahi nuke haurtzaroan gabeziak izateak ez zaituela betiko kondenatzen, badira atzerabuektak zorionez eta beti aldatu ahal izango gara, errazkiago edo zailago, baina haurtzaroak duen potentzialitate hori zaindu egin beharko litzateke, hor baitago dena.

Ez da inondik ere ikusmolde utopikoa, nire hitzen arabera eman bailezake horrela haziz gero, gizaki superman eta superwomanak sortuko direla... ez da inondik ere hori, gizaki oso izango gara, ez gehiago, ez gutxiago. Orain, ordea, mediokreak gara, oso eskasak.

Eskolara etorrira, zure esaldia da: "Indarrean dagoen hezkuntza-sistema ez da osasungarria haurrarentzat". Adibideak jar ditzakezu?



Haurrek berezkoa dute jakin-mina eta ikasteko gogoia, mundua eta bizitzarekiko interesa. Heldua hori bideratzen saiatzen denean, esanez haurrari orain hau ikasi behar duela, horrela ez eta horrela bai, jakin-min hori itzaltzen joaten da.

Berez, eskolan irakasten den guztia interesgarria da, dena baita polita. Nik ez dut ezer horren kontra, baina gakoetako bat da bakoitzak edukitzea askatasuna ikasteko une bakoitzean nahi duena, nahi duen erritmoan, nahi eta behar duen moduan, eta bere jakin-minarekin bat egiten duenean. Eskola konbentzionalak baditu ikas-

keta eragozten duten ezaugarriak, usu eskolaren definitzaile bezala identifikatzen ditugunak gainera. Bada, benetako ikastoki izateko, kendu beharko litzaioke ikastea eragozten duen oro, adin bereko haur guztientzako curriculumetik hasita, adibidez. Curriculum ezkutua ere hor dago, eta hori da askotan arriskutsuena. Eskolaren kontzeptuan berean dago eskolaren arriskua. Ni sistemaren barnean ibilia naiz Bigarren Hezkuntzan irakasle, eta sistemaren barnean jarraitzen dut orain ere, unibertsitatean, baina hala ere, edo horregatik, iruditzen zait eskola zalantzan jarri

behar dela errotik. Ez baldin baduzu eskolaren kontzeptua bera zalantzan jartzen, abiapuntua baldin bada eskolaren erabateko beharrezkotasuna, hausnarketa horrek ez zaitu oso urrun eramanen, ez duzulako irudikatuko oraingoaren oso ezberdina den eskola bat.

Sistemarekin *berradiskidetzeko* eta bertan segitzeko ere behar duzu sistema errotik kuestionatu. Eta hori da jende bati kostatzen zaiona. Nire ustez, ikasketa ez genduzen hertsiki lotu eta identifikatu behar eskolarekin, eskola ez baita ikasteko toki bakarra, eta zentzu horretan diot hain zuzen ere eskolak ez direla *beharrezkoak*. Ikasketa bizirik egotearen funtzio natural bat da, eta beti edo edonon ari gara ikasten. Orduan zertarako erlazionatu ikasketa toki batekin, une konkretu batekin?

Hezkuntza-eredu tradizionaletik harago, eskola bera eta oro bat gizarte eredu guztia zalantzan jartzeak ez gaitu eramaten inposibilismo batera?

Ez, eskola irudikatzen baldin badugu ikastoki bat bezala, hau da, berezko ikasketaren jarraipen bat bezala, eskolak izaten ahal dira interesgarriak, jakina. Baina horra iristeko zalantzan jarri behar duzu eredu, gai izan behar dugu gogoeta egiteko agian irakasleak ez direla behar, helduak bai, baina ez irakaslearen funtzioan; agian ez direla behar klaseak, ebaluazio-kalifikazioak, curriculum... Ken diezaiozun eskolari eskolarekin identifikatzen dugun ia guztia, eta orduan bilakatuko dira benetan ikastoki. Barneko funtzionamendua errotik aldatu beharko litzateke, kasik bizitokiak izateko gehiago eta horrela ikastoki lirateke, horri deitu ahalko geniokeelarik eskola. Oraingo eskolak ez baitira eskolak (ikastokiak), beste zerbaite dira.

Begira, eskola libre bateko adibidea jarriko dizut: horko nerabeek ordu gehiago pasa nahiko litzukete eskolan, ikasten, eta ezin dute eskola itxita egoten delako. Hori zenbat institututan pasatzen da hemen? Eskola libre horiei kendu zaie itxuran eskolarekin identifikatzen den guztia, eta orduan dira eskola eta ikastoki. Eskola baldin bada toki bat non

haurra modelatu eta formatatzen den, eskola izena merezi ez duen beste zerbaitez ari gara mintzatzen.

Zuk diozun ildotik, eskola bizitoki izan dadin eta ikastea plazeretik eta norberaren jakin-minetik gauza dadin, nondik hasi beharko genuke? Aldaketa baino gehiago iraultza da proposatzen duzuna.

Bai. Horri gehitu nahi nioke gu herri menperatua izanik ez dugula geurtzat hartzen ahal dugun hezkuntza-sistema nazionalik, eta itxuran den gabezia horrek inoiz geurea sortzearen aukera digula eskaintzen. Independentzia berreskuratzeko dugunean geurea izanen den eskola-eredua zerotik sortzeko aukera izanen dugu. Nik ez dut aintzat hartzen natural bezala hemen instalatua daukagun hezkuntza-sistema, ez delako gurea. Eskolari buruz egiten dudana lanaren nire helburua da geure hezkuntza-sistema nazionala sortzeko politika egitea eta egin beharko dugunerako kalitatea non eta zertan ezarri jakin ahal izatea. Ona eta ongi egitea. Nondik hasi sistema orain eta hemen iraultzen? Curriculum, gutxienez, askoz ere zabalagoa egingo nuke. Adibidez, Iparraldean, Frantziako legeen menpe daudenez, haurrak eskolarik gabe etxeetan hezten dituzten familiek jasotzen dute urtean behin inspektoreen bisita. Gauza oinarri-zkoak galdetzen dizkiete haurrei inspektore horiek, minimoak, eta noski, haur horiek badakite hainbeste. Horrelako minimoak ezarriko nituzke. Hezitzailearen lanari dagokionez, helduaren egitekoa, ez litzateke gauzak irakastea, gauzak erakustea baizik, alegia, giro egoki, interesgarriak eta aberasgarriak eskaintzea... ez direktiboa izatea, haurraren jakin-mina ezarri ardatz eta gidari. Zuk ez badiozu eragiten, eta aukerak ematen badizkiozu, haurrak egingo du bere ikerketa lerro propioa, bere curriculum.

Oso garrantzitsua da, inork ezin digulako gainera inoiz lapurtu, gu, hezitzaile edo helduok zer garen. Guran dago gakoa. Zein espektatiba dugun haur horiengan; nola erlazionatzen garen haiekin; zenbaterainoko gaitasuna dugun euren erritmoa eta

“Ez baldin baduzu eskolaren kontzeptua bera zalantzan jartzen, hausnarketa horrek ez zaitu oso urrun eramanen, ez duzulako irudikatuko oraingoaren oso ezberdina den eskola bat. Sistemarekin “berradiskidetzeko” eta bertan segitzeko ere behar duzu sistema errotik kuestionatu”

izatea errespetatzeko, zer gaitasun ditugun —eta ekipoan baldin bada hobeki— sistemari ziria sartzeko. Sistema barruan baldin bagaude, eta onartuta ere ez dela gurea eta ez dugula ezta pedagogikoki ere errekonozitzen, desobedientzia egin behar dugu. Buelta eman behar diogu honi. Oso kexu gaude, baina kexu hori ez da askotan produktiboa, geldiarazlea da, “ezin da, ezin da” pentsatzen dugu... jarrera hartze bat behar da, bakoitzak topatu dezan dagoen toki horretatik beretik muga gainditzeko manera. Horretarako, ordea, beharrezkoa da eskola beste modu batean irudikatzea.

Eskola osasuntsuago bat, edo Udako Topaketetan eman izan duzun ikastaroaren izenburuarekin lotuz, eskola libreago bat egiteko, dekonstrukzio bat egin behar dugu, desikaste bat...

Hori da. Eskolaren suntsitzea irudikatu behar dugu, zerotik abiatu ahal izateko, kondizionamendua kentzeko.. Ez badut, adibidez, heldu bezalako nire egitekoa kuestionatzen,



nire burua erabat beharrezkoa ikusten badut eginkizun horretan, ezingo naiz gehiegi mugitu hain beharrezko bezala irudikatzen dudan nire funtzio horretatik. Krisian sartu behar gara sistemarekin, eta behin askatu naizela, ikusiko dugu zer egin dezakegun. mamua, etsaia nor den eta nolakoa.

Eskolaren egitekoari buruz edo irakaslearen funtzioarekiko kritikak entzuten ditugunean, askotan errua sentitzen dugu. Haatik, errua ez da osasungarria, ez da produktiboa. Prebentziora joanda, nola hartu genezake hurrekiko hezitzaile-ardura ildo kritiko horretatik?

Oso barneratua dugu umeekin egotea interbenitzea dela, gauzak egitea, dinamizatzea, egin, egin, egin... eskua

sartu. Zaintzaren garrantzia aldarrikatu behar dugu, zainketaren zentzu handiagoa eman beharko genioke hurrekin egoteko uneari, zaintzen ari zara, babesten... ez aurreratu, ez eragin, ez bideratu, begirada hori haragitu gudan eta ondoren gure egoteko modua aldatzen da: presarik ez, lasai... hori oso garrantzitsua da. Errudun sentimendua inoiz ez da aholkulari ona. Errua eta ardura ez dira gauza bera. Gu ez gara ez dakigunaren errudun, baina bai arduradun. Erruan ez dugu erori behar, baina batzuetan kulpan ez erortzeagatik beste aldera joaten gara, behar izaten dugu autokonplazentzia hori, hurrekin egotea ardura bat da. Gu erlaxionatzen ahal gara gure bikoteki-dearekin, lagunekin, gurasoekin edo

lagunekin nahi dugun bezala, gure buruarentzat kalte izango da gaizki erlaxionatzen baldin bagara, baina hurrekin gaudenean ardura dugu eta arduradun behar dugu jokatu. Horrek ez gaitu eraman behar paralizatzera, uste izatera ez dakigula egiten, baina bai pentsatzera bizitzaren kimuarekin ari garela lanean, horrek daukan garrantziaren oso jakitun; horra begirada honek nabarmentzen duena. Ardura bai, baina ez errudun sentiarazlea, baizik eta erronka bezala, eta hori polita da. Hurrekin lanean aritzeak zer itzultzen digu? Geure buruari baimena ematen diogunean, haurra gure ispilu bihurtzen da, gauza asko erakusten dizkigute. Hurrekin egotea bizitzaren lokatzetan egunero sartzea bezala da. Eskolara erakustera eta ikastera joatea litzateke kontua, ez irakastera.

Aurten, Goiztiri eskola libreko koordinatzaile Ana Otxoteko eta Ainhoa Iturbe bidelagunarekin emango duzun ikastaroaren izenburua, Bizitzaren eskola: Askatasunerako pedagogia da. Askatasunaz ari zarenean, zertaz ari zaren argitzea nahi nuke. Mendekotasunaren eta askatasunaren kontzeptuak argitzea. Mendekotasuna bizi beharreko momentuan ez bizitzeak helduaroan zer-nolako ondorioak dituen argitzea nahi nuke.

Lehen aipatu dudan konexio-deskonexioa hortik doa. Deskonexioa da zuk beste bati ematen diozula opari zure askatasunaren giltza. Zuk ez badakizu zure burua maneiitzen, beste batek maneiatuko zaitu. Mendeko zara, beste baten erreferentzia eta gidaritzea behar dituzunean. Mendekotasuna, garapenaren etapa batean behar biologiko bat da, oso mendeko jaiotzen gara, edozein espezieetako kumeen gisan heldu bilakatu arte zainduko gaituen norbaiten oso mendeko, baina gure espeziearena are handiagoa da. Mendekotasun hori tokatzen den momentuan bete-betean ez bizitzeak garamatza gero, hain zuzen ere, oso mendeko izan behar izatera, geure baitan asegabe utzitako zulo handi bat dugulako, eta gure gizartean zerbaitetan egiten baldin badugu denok bat da ia denok dugula oso ase

gabe mendekotasunaren garaia. Oso jende gutxi dago benetan aske dena, ez dakigu nola izan aske, eta hori gure gizartearen gaitz estruktural bat da, askatasun eza, edo askatasunean bizi ezina. Argitu dezagun orain zeri esaten diogun aske izatea, gure egoera kateatuegitik eman baitezake aske izatea nahi duguna egitea dela, paradisua, batere mugarik ez izatea. eta ez da horrela.

Askatasuna da aukeren artean hautua egin ahal izatea, arduraz, kontzientziaz, zure gogo, behar, desioen arabera, baina bestearen arabera, gizartea kontuan izanik, gure mugak kontuan izanik aukeratzea.

Mendeko izatea tokatzen den momentuan norbaiten mendeko izatea bizi baduzu, eta hori benetan eta sakonki bizi izan baldin baduzu, horrek eramaten zaitu pertsona horrekiko atxikimendu estuko harreman bat eraikitzen. Zuk bestearen beharra duzu eta beste pertsona horrek eman egiten dizu behar duzun guztia, orduan lotzen zara afektiboki pertsona horrekin. Gainera, zurekin enpatiko izan direnez, eta eskuzabal eman dizutenez, zuk ere ematen duzu. Mendeko izateak garamatza oso izatera eta osotasun horretan bestea ikustera.

Zuk, beraz, mundua on ikusten duzu... zuri eskuzabal eman badizute, zuk ere emango duzu...

Haurraren psikismoari aportatzen diona da mundua toki bizigarri bat dela sentitzearen kontzientzia izatea. alegia, “nik merezi dut nire amaren maitasuna naizenagatik bakarrik, merezi dut norbaiten zaintza, mundu honek merezi du”. Gizakiarenganako konfiantza primario hori orduan garatzen da. Orain lotura egin ezazu gure gizartean dagoen mesfidantzatasu patologikoarekin, eta konturatuko zara hain oinarrizkoa beharko lukeen sentimendu humano hori ere ez dugula gutako askok.

Sistema kapitalista eta patriarkalarekin bat egiten duen eredia da hau, sistemari interesatzen zaio gizaki maleableak fabrikatzea. Baina nola mugitzen ditu sistemak hari horiek? Pertsona oso eta aske bezala gara-

tzeko, gure gaitasun guztien jabe, ezinbestekoa da bizitzaren hasieran loturik egotea erreferentziazko pertsona bati, amari, aitari. Atxikimendu oinarrizkoaren lotura hori mozten denean, oso min sakona eragiten zaigu gizakioi.

Ez dakit nork eta noiz erabaki duen hori horrela izan dadila, baina osasungintzari eta hezkuntza-sistemari begiratuta delegazionismo ikaragarriaren erori garena begibistakoa da ez gara gure osasunaren jabe, ez gara gure heziketaren jabe, dena delegatu egiten baitugu eta kasualki, norbaiti izugarri komeni zaio guk gure osasuna eta hezkuntzaren ardura besteren esku utzi izana. Gure buruaren jabeago bagina, ez genieke utziko sartzan dizkiguten ziriak sartzan, ez genituzke ditugun agintariak izango, hori hala da. Ez da sobera paranoiko izan behar hori ikusteko.

Umeen beharrak eta erritmoak errespetatuko lituzkeen pedagogia batekin emaitzak benetan beste batzuk dira eskolan?

Gure herrian bertan sortzen ari dira orain indarreko eskola-eredu konbentzionaletik kanpo eskola asko. Horrelako heziketa-ereduak mundu mailan baditu urteak. Eta egia da, berriz diot idealizatu gabe, eskolatik ateratakoan haurrek duten perfil psikologikoa, gauza batzuetan behintzat, ezberdina dela. Gero institutuetera joaten diren haur horien ezaugarrietan gauza komun batzuk ikusten dira: gauzak adierazteko modua, elkarlanean aritzeko gaitasuna, norberak zer nahi duen jakiteko eta adierazteko ahalmena... Zer esanik ez Summerhill eskolek-eta, ehun urte daramatzate... [Alexander Sutherland] Neilli galdetzen zioten bere eskolan arrakasta zein zen, eta %100 zela erantzuten zuen, bere arrakastaren neurria haurren ongizatea izanik, denak zirelako zoriontsu, denak bilakatzen zirelako nahi zuten hori.

Ñabardura bat egin nahi nuke, zoriontasuna eta plazeraren kontzeptuek ari garena. Plazerean hazi eta ikasteari buruz mintzo garenean, jendeak pentsatzen du haurrek eskola horietan ez dutela ez disgusturik, ez gatazkarririk, ez diziplinaririk. eta ez da horrela.

Plazerean ikasteak suposatzen du plazeretik ikastea, alegia, nik nire desioagatik ikasten dudala ingelesa, baina horrek ez du esan nahi ingelesa ikasteko ez dudarik pasa behar infernu ttipi bat. Plazera ez da dena erraz egitea, zeure gogo eta interesa delako egiteagatik baizik.

Irakasle bezala, gauza bera litzateke. Erraza denik ez du inork esan, sistema mamu handi bat da, ikaragarria, zeinaren kontra borrokatzea eta eraldatzea ezinezkoa den, garbi dago. Baina gure gogo baldin bada, gure askatasunetik eta gure arduratik, gauza batzuk egin ahal ditugu. Ez dena, mugak askatasunaren parte baitira beti, baina inportantea da bakoitzak ikus dezan askatasuna duela mugak gainditzeko eta hautuak egiteko, ez dagoela ezertara kondenatuta.

Urterik urte eskola libre eta demokratikoei buruzko ikastaroa eman duzu udako topaketetan. Aurten askatasunerako pedagogiaz ariko zara. Ikastaroaren gainean zer nabarmen-duko zenuke?

Eskola libre eta demokratikoa ikastaroan jendeak segida bat eskatzen zuen, modu praktikoago batean lantzea gaia, eta hortik etorri da ikastaro hau. Heziketaren inguruko hausnarketa hauek guztiak modu bibentzialago batean ematen saiatuko gara, arreta handia jarritzaz hezitzaileak egin behar duen lan horretan, eta bidelagun funtzioa nola egin azalduz, baita, garapen etapak esplikatuz, eta haurrentzat espazio bat egokia izan dadin zer egokitzapen behar diren ikusiz ere... Helburua da eskola batek nolakoa izan beharko lukeen azaltzea, eta hortik aurrera batek erabakiko du eskola bat sortzea eta beste batek dagoen tokira ikasitakoa eramaten saiatzea.

Dena dela, eskola bat osatzea aipatuta, 0-6 urte bitartean eskola derri-gorrezkoa ez delarik, zerbait egiten ahal duzu, baina hortik aurrera, ez ote dago muga administratibo asko? Bai eta ez. Eskola hauetako batzuek badaramatzate hamar urte, eta ez da arazorik izan; gero, sisteman integratu nahi duten haurrek ez dute arazorik.

EKARPENAK 1

ALEXANDER TEKNIKA

Gorputza egoki erabili, ondo funtziona dezan

Nork bere gorputza egoki erabiltzen irakasteko metodoa da Alexander teknika. Funtsean, printzipio nagusi batean oinarritzen da: bakoitzak bere gorputza erabiltzeko duen moduak eragina du haren funtzionamenduan, eta, beraz, erabilera nolakoa, halakoa izango da gorputzaren funtzionamendua. Azken batean, gorputzaren heziketarako metodo bat da Alexander teknika. Anne Landa akordeoilaria da, eta Musikeneko Alexander teknikako irakaslea da, gainera; *Alexander teknika* izeneko ikastaroa emango du Hik Hasik antolatutako Udako Topaketetan: “Oso modu praktikoan lantzen da teknika hori; pertsona bakoitzak gorputza nola erabiltzen duen aztertzen dugu, eta erabilera txarrak zuzentzeko aholkuak ematen ditugu”.



Anne Landa

Musikeneko
irakaslea

Gorputza hezteko metodo bat da Alexander teknika, eta nork bere gorputza egoki erabiltzeko zenbait teknika irakastea eta hainbat tresna eskaintzea du xede. Errazago mugitu ahal izateko, norberaren gorputzaren oreka eta askatasuna aurkitzea da jomuga. Era berean, gorputza nola dagoen diseinatuta ikasteko balio du teknika horrek, hala errazagoa baita benetan gorputza libre uztea, berez dakien bezain ongi funtziona dezan. Euskal Herrian horren ezaguna ez bada ere, asko erabiltzen da teknika hori Europako hainbat estatutan, segurtasuna eta askatasuna ematen baititu edozein jardunbidetan — irakasle, musikari, antzezle, dantzari, bulegoko langile, eraikuntzako... —, gorputzarekin egin beharreko ariketa orotarako.

Teknika hori Frederick Matthias Alexanderrek sortu zuen, XX. mende hasieran. Aktorea zen, eta ahotsarekin arazoak izaten hasi zen, egun batetik bestera. Afoniko geratzen zen batzuetan, ahotsik gabe. Askotariko azterketa medikoak egin zizkioten, baina dena ondo zeukala esaten zioten, ez zeukala arazo fisikorik. Hark, ordea, antzezten hasten zen aldiro, ahotsa atera ezinik jarraitzen zuen. Hala, ahots-arazoei aurre egin nahian, behaketa-lanetan hasi zen Alexander, eta konturatu zen bere



ahots-mekanismoa ez zuela oztopatzen ahotsa erabiltzeko zuen moduak: hitz egiterakoan, bere gorputzaren altuera txikiagotu egiten zuen; lepoa uzkuratzen zuen, eta burua atzerantz botatzen zuen; gainera, laringea estutzen zuen. Erabilera horren ondorioz, ahuldu egiten zen haren ahots-mekanismoa; ahots-erlastura eragiten zion horrek, eta ahotsa galtzen zuen. Ahotsarekin zituen arazo horiei konponbidea jarri nahian garatu zuen Alexander teknika.

Antzeko bide batetik iritsi zen Anne Landa ere Alexander teknikara. Eskumuturreko minekin hasi, eta tendinitisa zuela ohartu zen: “Min handia izaten nuen akordeoia jotzeko orduan, eta gauza bera esaten zidaten denek: ‘normala da: akordeoia hain da handia, eta zure eskumuturra hain txikia...’ Tendinitis kronikoa diagnostikatu zidaten medikuek”. Akordeoilaria izanik gertatzen zitzaiona munduko gauzarik normalena zela entzuten urteak igaro ostean, erabaki zuen Alexander teknika ikastea, eta gorputzaren mugimenduak nahiz akordeoia jotzeko garaian erabiltzen zuen postura lantzen hastea; hala, denboraldi bat pasatu ondoren, eskumuturreko mina desagertzen hasi zitzaion: “Gaur egun, inolako arazorik gabe jotzen dut akordeoia; ez daukat tendinitisik jada”. Izan ere, Landak

argi du bere tendinitisaren sorburua ez zela izan akordeoia, edota jotzen zituen obren zailtasuna, akordeoia jotzeko zeukan modua baizik: “Erabat uzkuratuta jotzen nuela ohartu nintzen, lepoa okertuta nuela, eta indar izugarria egiten nuela hauspoa irekitzen eta ixten... Lan handia egin dut, eta aldaketa asko txertatu ditut nire gorputzaren egoteko, mugitzeko edota egiteko moduetan. Akordeoia handia da orain ere, pisu handia du, baina arazorik gabe jotzen dut”.

Azken batean, Alexander metodoak aukera ematen du gorputza berriz hezteko. Motela izan ohi da teknika horretan datzan ikasketa-prozesua, baina,aldi berean, ziurra izan ohi da. “Gure gorputzean txertaturik ditugun ohiturez kontziente izaten laguntzen digu, eta, gorputzak berez duen inteligentziaz joka dezan, interferentzia desegokirik ez ezartzen. Finean, une oro gauden espazio horretan eta besteekin partekatzen dugun eremu horretan presenteago eta kontzientea-go egoteko balio digu”.

Jaiotzean, umeak, patologiaren bat ez badu behintzat, gorputzaren erabilera egokia egiten duela beti dio Landak, baina, hazi ahala, ohitura txarrak hartzen dituela, eta orduan hasten garela normala ez dena normaltzat hartzen: “Gure artean, normaltzat hartzen da bizkarreko mina eduki-

tzea, ordenagailu aurrean ordu asko igarotzen ditugulako, autoan egunero kilometro asko egiten ditugulako, instrumentu hau edo bestea jotzen dugulako, haurrak besoetan hartzen ditugulako, etxeko lanak egin behar ditugulako... Baliteke gorputzeko zenbait arazok esku-hartze medikoa behar izatea, baina, beste batzuetan, iruditzen zait gorputza egoki erabiliko bagenu, ez genituzkeela horrenbeste min eta arazo izango”.

Landak gaineratu duenez, inkontzienteak dira gorputzaren erabilera txar asko; ohiturak pixkanaka txertatzen dira gorputzean, norbera konturatu gabe, baina, irakasleak ohartarazi digunez, gorputzaren erabilera txarrak okertu egin dezake haren funtzionamendua. Hortaz, Alexander teknikako irakasleek ikasleari behatzen diote lehenengo, zer ohitura dituen begi-bistan jartzeko, gorputzaren zer jarrera izan daitekeen erdipurdikoa ohartarazteko, eta gorputzaren erabilera egokia zerk oztopatzen duen aztertzeke. Baina, berez, oso mentala da teknika hori, gorputzaren erabilera norberak egunerokoan zer ohitura txar dituen konturatzeko baita helburua, eta, apurka, horiek aldatzen joatea. Horregatik, Alexander teknikako irakasleek ez dute fisikoki esku hartzen, ideia ez baita gaizki dagoen zerbait ondo jartzea, baizik



eta gaizki egon daitekeen hori ez egitea; gaizki egiten den hori egin baino lehen geratzea, alegia. “Gorputzaren erabilera txarra litzateke, adibidez, lanetik etxera joan, eta sofan erdi eserita erdi etzanda jartzea, deskantsu hartzen ari garelakoan. Zergatik? Horrek gorputz-sistema uzurtzen duelako, eta giharrak estutzen dituelako, arnasa okerrago harrarazten digulako... Beraz, tresnak emango dizkiot nik ikasleari, baina hura izango da bere egunerokoan aktiboki aldatetak txertatuko dituenena. Bakoitzak bere garunean egin behar du klik; hau da, nor bere ohiturak nolakoak diren jabetu behar du, eta zer egin dezakeen horiek hobetzeko. Bide horretan, irakaslea laguntzaile bat besterik ez da”.

Baina Alexander teknika ez da

gorputz-ariketen programa bat ere, yogan edota pilatesen egiten diren ariketen antzekoa. Norbera nola mugitzen den jabetzeko kontzientzia hartzen laguntzen duen metodo bat da. Hala, bakoitzak erabakiko du une oro nola erabili bere gorputza behartu gabe. Era berean, Alexander teknika ez da tratamendu bat, akupunturaren edota kiropraktikaren kontrara. Beraz, Alexander teknika lantzen dutenak ez dira terapeutak, irakasleak baizik, eta ez dute pazienteekin lan egiten, ikasleekin baino. “Heziketaz ari gara, egunerokoan dituzten ohitura txarrak albo batera uzten ikasten baitute ikasleek, eta berriak txertatzen. Alexander teknikako irakasleak ez gaude prestatuta diagnostiko medikoak egiteko; bai, ordea, behaketa-rako”; bereziki, bakoitzaren gorputz-

erabilerak postura-mekanismoetan eta arnasketan duen eragina aztertzen dute, eta gorputzaren erabilera hobetzeko zenbait aholku ematen dituzte, xedetzat gorputza egoki erabiltzea, libreago mugitzea eta, finean, hobeto sentitzea hartuta.

Landak azaldu duenez, asko lantzen da aldatu ezin den estimuluaren ideia Alexander teknikako eskoletan, eta Musikenen dituen ikasleak jartzen ditu adibidetzat. “Musikeneko ikasleek azterketak egin behar izaten dituzte ikasturte amaieran, eta azterketa horiek estimulu batzuk eragiten dituzte; baina hori errealitatea da, eta ezin da aldatu. Beste estimulu bat egunero ordenagailu aurrean hainbat ordu igaro behar izatea izan daiteke, edota zama astunekin lan egin behar izatea. Ezin dugu aldatu errealitate hori, baina alda ditzakegu errealitate horren aurrean guk hartzen dugun gorputz-kontzientzia eta jarrera”.

Alexander teknikako eskoletan, lan handia egiten dute estimulu zehatz batekin, aulkiarekin, hain justu. Izan ere, aulkia edozein pertsonaren bizitzan txertatuta dagoen elementu bat da. “Aulkia estimulu bezala hartuta, ikasleen kontrol primarioekin zer gertatzen den ikusten dugu; hau da, zer gertatzen den lepoaren, buruaren eta gorputzaren arteko erlazioarekin. Nola egiten dugu buruaren, lepoaren eta bizkarraren arteko erlazioa? Nola kokatzen ditugu berriro une bakoitzean? Aulkian esertzeko eta handik altxatzeko mugimenduekin soilik artikulazio pila bat jartzen ditugu martxan, eta, horrelako mugimendu batekin, argi ikus dezakegu zer joera nagusi duen ikasle horrek, gorputzaren erabilerrari dagokionez”. Diagnostia egin ondoren, gorputzaren mugimendua eta erabilera hobetzeko aholkuak ematen dituzte Alexander teknikako irakasleek. Ikaslea kontziente izan dadin egiten duen horretaz, eta bere postura aldatzeko tresnak izan ditzan; “Jakin dezatez la gorputza noiz dagoen ondo eta aske mugitzeko moduan”. Horretarako, saio praktikoak egiten dituzte ikasleekin Alexander teknikako irakasleek, eta horixe egingo du Anne Landak Hik Hasik antolatutako Udako Topaketetan.

EKARPENAK 2

MINDFULNESSA ETA HEZKUNTZA

Zer egiten dute meditazioak eta zientziak bat eginda?

Gure gaur egungo gizarte moderno eta estresatu honetan, indartsu azaldu da azken boladan *mindfulness* mugimendua, arreta osoa esan nahi duena. Meditazioan oinarritzen den entrenamendu mentala da *mindfulnessa*, arreta orain gertatzen ari denari lotzen irakasten duena. Zertarako balio diezaguke une honetan, gure Mendebaldeko mundu modernoan, oinarria duela 2.500 urte baino gehiago duen antzinako teknika horrek, lurraldearen beste aldetik, Ekialdetik, datorrenak? Izan ere, *mindfulnessa* gaur egungo zientziaren ekarpena izanda



Naiara Gorroño Viteri

Yoga irakaslea.
Mindfulness
bideratzailea.

ere, oinarria budismoan duen teknika bat da. Mestizaje bat da, Ekialde espiritualaren eta Mendebalde pragmatikoaren arteko elkartzea, eta hor dago, agian, haren balioa: gure gizarteak ahaztu duen alderdi bat lantzen du, barne-errealitatea, eta gaur egungo gizarte azeleratu honen abiadura moteltzera dator, gure buruak patxada eta lasaitasuna izan ditzan, baina Mendebaldeko zientziak garatu dituen ezagutzak alde batera utzi gabe.



Eta zer egiten dute zientziak eta meditazioak bat eginda? Printzipioz, badirudi bi ontologia desberdinez ari garela. Ontologiak errealtatea ulertzeko moduari erreparatzen dio, eta pentsa daiteke errealtatea ulertzeko modu desberdinak direla zientzia eta budismoa. Baliteke horrela izatea, baina horrek ez du esan nahi elkarrekin joan ez daitezkeenik, edo bata bestea ezin erreal dezakeenik. Horixe da *mindfulness*, neurri batean: antzinako budismoaren praktikan eta jakiturian oinarritzen da, eta, era berean, gaur egungo mugimendu transdiziplinarioa da, unibertitate-munduko askotariko zientzia-korronteez elikatu dena: psikologiak, biologiak edota neurologiak ekarpenak egin dizkiete horren urrutitik zetozen jakituri, gure gaur egungo hizkuntzara moldatuz, sistematizazio garbia emanez, eta ulergarri eta praktikoa eginez, une honetan bizi ditugun desafio eta egoerei moldatzeko bide moduan.

Mindfulness bizipenetan, praktikan, oinarritzen da batez ere, eta meditatzen irakasten du: arreta une honetan gertatzen ari denari zuzentzen ikasten dugu, jarrera jakin batekin, onarpenez, epairik gabe eta adiskidetasun-jarrera batekin, alegia.

Entrenamendu mentala da *mindfulness*, barneko eta kanpoko bizipenak orainean bizitzen irakasten duena. *Mindfulness*ak kontuan hartzen du pertsonaren barne-errealtatea, eta introspektzio-lana egiten laguntzen du, norberaren ezagutzan sakontzeko. Norberaren pentsamendu, sentsazio eta emozioez ohartzen irakasten digu, eta, kanpoan, gure inguruan eta beste pertsonengan gertatzen ari denari adi egoten ikasten dugu.

Zientzia gertutik ari da *mindfulness* praktikak dituen eraginak ikertzen, eta agerikoa da arretaren entrenamendu hori norberaren ongizaterako eta zirraren bizipen positiborako bide bat dela. Askotariko ikerketek argi frogatu dute *mindfulness* praktikatzeak aldaketak dakartzala garunaren funtzionamenduan: estres maila eta antsietatea jaitsi egiten dira, jarrera enpatikoa eta elkarren arteko ulermena hobetu egiten dira, eta, horri esker, posible da harreman oparo eta osasuntsuagoak izatea. Baina *mindfulness*ak zerikusi estuagoa du bizitza bizitzeko modu batekin, alderdi fisiko eta psikologikoetan dituen onurekin baino. Hala ere, meditazioaren onurak egiaztatzeko zientziak egindako berrespena ezinbestekoa izan da, *mindfulness* hainbat testuinguru-

tara egokitzeke: enpresa-munduan, psikologian eta, nola ez, hezkuntzan, askotariko ekarpenak ari da egiten *mindfulness*, bai ikasleei eta bai irakasleei begira.

***Mindfulness*ak irakasleei egiten dien ekarpena**

Badirudi lasaitasun eta arreta eske dabilela hezkuntza, eta, horren aurrean, irtenbide eraginkorra izan daiteke *mindfulness*, hezkuntzak aurrez aurre dituen egoerei eta desfioei erantzuteko.

Arras konplexua da hezkuntza-prozesua, eta, alde batetik, irakaste-prozesua eta, bestetik, ikaste-prozesua batzen ditu. Bi norabideotan, pertsonaren izate osoa dago inplikaturatuta: alderdi kognitiboa, sentsazioak, emozioak, ingurua, motibazioa... Horiek guztiek parte hartzen dute hezkuntzaren jardunean. Eta, bi bazterretan, bada zerbait ezinbestekoa dena, hezkuntzaren esparruko harremana gauzatzeko: arreta eta lasaitasuna izatea.

Lasai dagoen pentsamenduak, estresik ez duen buruak, hobeto irakasten eta ikasten du.

Beraz, ikasleek eta irakasleek arreta eta lasaitasuna behar dituzte, haien arteko harremanak fruitu emankorrak izan ditzan, eta ezagutzaren transmi-

sioa eraginkorra izan dadin.

Mindfulness sak bi arlotan ekarriko dizkio aldaketak irakaslearen jardunari: haren egoteko moduan, eta egiteko moduan.

Maila pertsonalean, irakaslearen egoteko modua alda dezake *mindfulness* sak.

Lanbide zorrotza da irakasleena. Eguneroko gauza dira nekea eta estresa irakasleen artean, eta ez da harriztekoa. Ez da erraza egunero-egunero 24 pertsona dauden gela batean sartzea, eta zerbait irakastea bakoitzak bizi duen egoeran eta *guztition* artean sortzen den egoeran.

Irakaslearen egoera pertsonalak erabateko eragina du haren jardunean: irakaslea nola dagoen, modu batekoa edo bestekoa izango da gelako giroa. Ondo daki hori hezkuntzan dabilenak.

Eta, era berean, irakaslearen egoera pertsonala baldintzatuko dute gelan gertatzen diren egoerek; izan ere, joan-etorrikoak dira pertsonen arteko harremanak.

Irakasleak egunerokotasuna *mindfulness* jarrera batekin bizi badu –hau da, orainean kokatuta, onarpenez eta adiskidetasun-tratu batekin–, aldaketak ekarriko dizkio horrek haren jardunari, inolako zalantzarik gabe. Hor jarraituko dute hezkuntzak egunerokoan dituen zailtasunek, ez dira desagertuko; baina aldatu egingo da horiek bizitzeko modua. Bada-go Mexikoko indigenek erabiltzen duten esaldi bat: “Begirada aldatzean, mundua aldatzen da, mundua aldatzean begirada aldatzen den bezalaxe”. Horixe da *mindfulness* sak egiten digun ekarpenetako bat: gure pentsamendua baretzen hasten garenean, orainean egotean datzan esperientzia bizi dugunean, aldatu egiten da guk munduari begiratzeko dugun modua, gure begirada. Orainean bizitzea ikasi beharreko zerbait bihurtu da gehienontzat, zeren etengabeko jardunean ari da geure burua, pentsamenduetan, plangintzetan edota isiltasunik gabeko marmarrean sartuta, orainetik kanpo.

Oraina bizitzeak garrantzi berezia du irakaslearentzat, beti orainean gertatzen baitira hezkuntza eta ezagutzaren transmisioa. Horregatik, pentsamendua baretzeak eta orainean

kokatzeak aurrean daukan taldearen egoera argiago antzemateko aukera emango diote irakasleari. Era berean, irakaslearen lasaitasunak lasaitu egingo ditu ikasleak ere. Irakasleak bere ereduarekin irakasten du batik bat, eta, sarritan, irakaslearen barne-egoerak baldintzatzen du taldearekin duen harremana. Lasaitasuna, emozio guztiak bezalaxe, kutsakorra da. Norbait lasai badago, nolabait transmititu egingo da hori, eta hobetu egingo da gelako giroa.

Mindfulness sak balio du duguna onartzen ikasteko ere, eta horixe da egiten digun beste ekarpen garrantzitsu bat. Bizi ditugun egoerak eta esperientziak onartzen irakasten digu *mindfulness* sak. Horren ohituta gaude epaiketara, kritikara, etiketak jartzera, non mekanismo horietatik irteteak aldaketa handi bat adierazten duen. Ikasleei epaitu gabe begiratzen badiegu, etiketak baztertzen baditugu, beste aldaketa handi bat ekarriko du horrek hezkuntzaren bizipenean. Baina, noski, ez da horren erraza epaiketak alde batera uztea eta onarpena bizitzea. Entrenatu egin beharko dugu arlo hori ere; ikasi egin beharko dugu, eta hori egiteko modu bat gure arnasa eta gure gorputza aztertzea eta onartzea izango da.

Bitxia badirudi ere, gauzak diren moduan onartzeak geure burua aldaketarantz irekitzeko aukera ematen digu. Onarpen-jarrera horrek, mendeko lekuan jarri ordez, barne-indarra ematen digu, geure eskuetan ez dagoen horren aurka borrokatzeari uzteko eta geure eskuetan dagoena egiteko.

Gure autoezagutzan sakontzeko bide bat ere bada arreta osoa entrenatzea. Gure barne-munduarekin harremanean jarriko gaitu *mindfulness* praktikak, guran gertatzen den horri behatu ahal izateko. Horrela, geure burua ulertzen eta onartzen dugunean, bestea hobeto ulertuko eta onartuko dugu.

Irakaslearen egitekoari dagokionez ere, ikasgelan erabiltzeko tresna bilaka daiteke *mindfulness* sak. Zeharkako tresna bat izango da, oso ariketa erraz eta azkarrekin ikasleen arreta bideratzen lagunduko diguna, alegia. Arreta arnasan jartzeak duen

“*Mindfulness*aren atzean dagoena gizakion kontzientziaren eraldaketa da. Hezkuntza –bai irakaste-prozesua, bai ikaste-prozesua– modu berri batean bizitzeko aukera eman diezaguke *mindfulness* sak, ardaztat norberaren ardura, onarpena eta adiskidetasuna hartuta. Egitean baino gehiago izatean oinarritzen den bide bat da, ekintzatik sentitzera joko duena, lorpenean baino gehiago bizipenean oinarritzen dena”

balioa praktikatu arte, ezin dugu susmatu ere egin zeinen baliagarria den hori. Soilik arnasa hartzeak eta arreta hor mantentzeak bat-batean gure barne-egoeran sortzen duten aldaketa oso azkar senti dezakegu; izan ere, zuzen-zuzeneko harremana dago arnasan eta pentsamenduaren artean. Adibidez gelako giroa lasaitzeko esku-eskura daukagun baliabidea da arnasa. Horren zaratatsuek diren ikasgelatan isiltasunerako uneak lortzeko, baliagarria izango da *mindfulness* seko ariketak egitea, gero, bai irakasleak eta bai ikasleek ikasgaiarekin modu lasaiagoan eta arreta gehiagorekin jarrai dezaten.

*Mindfulness*aren atzean dagoena gizakion kontzientziaren eraldaketa da. Hezkuntza –bai irakaste-prozesua, bai ikaste-prozesua– modu berri batean bizitzeko aukera eman diezaguke *mindfulness* sak, ardaztat norberaren ardura, onarpena eta adiskidetasuna hartuta. Egitean baino gehiago izatean oinarritzen den bide bat da, ekintzatik sentitzera joko duena, lorpenean baino gehiago bizipenean oinarritzen dena.

EKARPENAK 3

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

Mari Carmen Altuna, Monica Fernandez eta Amaia Zubizarreta

Elgoibarko eta Barriako Euskal Girotze Barnetegiko irakasleak

"Erabaki indibidualtzat dugu euskararen hautua, baina inguruak asko baldintzatzen du"

Euskal Girotze Barnetegietako egonaldietan eraldaketa-prozesu bati ekin diote. Ikasleek euskararekin duten harreman afektiboa berariaz lantzen dute, haiek euskarara erakartzen eta limurtzen saiatzeko. Prozesuaren ardatza da ikasleek kontzientzia hartzea: euskararen atxikimendu baikorraren graduaren kontzientzia batetik; eta taldean sortzen diren emozioen eta elkarrenganako dinamiken kontzientzia bestetik. Irakasleak horretan trebatzeko 'Ikasleak erakarri euskaraz egin nahi izan dezaten' izeneko ikastaroa eskainiko dute Fernandezek, Altunak eta Zubizarretak Udako Topaketetan. Argi dute euskararen hautua pertsonala dela eta bidea norberak egin behar duela, baina uste dute bide hori denon artean eraiki dezakegula: "Horixe da gure nahia, bide hori elkarrekin egitea, modu dibertigarri, ludiko eta erakargarrian".

Euskararen erabilerari dagokionez, euskal ikasleen artean zein da egoera? Nola deskribatuko zenukete zuen esperientziatik errealitate hori? Barnetegietan erkidegoko era, maila, eredu eta errealitate desberdinetako ikasleak izaten ditugu. Hau horrela izanik, aniztasun handia ikusten da euskararen erabileraren inguruan. Gehienetan ikasleen artean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da, nahiz eta askotan euskararekiko atxekimendu afektibo handia izan. Kontraesan honetaz ez dira ohartzen eta jolas eta hausnarketan bidez azalarazten eta kontziente

bihurtzen ahalegintzen gara.

Hizkuntzaren ezagutza gora doan arren, erabileraren datuak ez dira hain onak.

Hezkuntza munduan urte dextente pasatu dugu pentsatzen ezagutza + motibazioa = erabilera baina hau ez da betetzen. Ezagutza eta motibazioa norbanakoarena da eta hizkuntza erabiltzea ekintza kolektiboa da, beraz alderdi psikologikoari erantsi behar dizkiogu alderdi soziologikoaren eraginak.

Eta nola erakar daitezke ikasleak

euskaraz egin nahi izan dezaten?

Hainbat modu egon daitezke horretarako:

* Hausnarketak hizkuntzaren inguruan eta hizkuntza beste betaurreko batzuekin begiratzen jarri, akademikotik aldentuz. Euskarak zer eman dezake hizkuntza erraldoiekin alderatuz? Imaginatu herri batean gaudela eta bertan herriko denda txikia dagoela hipermerkatu baten ondoan. Denda txikian zu ez zara bakarrik bezero bat, "Ainhoa" zara eta saltzaileak badaki zure gustuko produktuak zeintzuk diren, eskeintzen dizu arreta pertsonala,



goxotasuna, komunikatzeko aukera eta azken finean beste mota bateko harremana. Hipermerkatuan bezero bat zara, eskaintza zabalagoa da, agian produktuak merkeagoak dira... Aldea hurbilketa pertsonalean dago. Hizkuntzekin gauza bera gertatzen da, hizkuntza erraldoi batzuekin bizi behar dugu, baina auzoko denden xarma badugu.

* Hitz egiteko guneak eskainiz, beraien interes, gusto eta beharren arabera, non protagonistak beraiek diren.

* Ludikotasunarekin lotuz. Ongi pasatzen dugunean naturalago, atseginago, alaiago, irekiago, ausartago... sentitzen gara. Euskarari kentzen zaio duen “derrigortasuna” eta “eskolarekin duen lotura”, hauxe baita ikasleek esaten digutena galdetzen diegunean ea zergatik egiten duten euskaraz.

* Erronkak burutuz: erronken bidez talde kohesioa ematen saiatzen gara baina pertsona bakoitzaren rola talde horren baitan agerian gelditzen da zenbaitzutan. Ekintza bat burutzeko “lidergoaren papera” duenak euskararekiko jarrera ezkorra baldin badu, talde horrek nekez hitz egingo du euskaraz. Taldekideak konturatu behar dira hitz egitea talde ekintza dela eta zenbait sinergia daudela hizkuntza hautatzeko unean. Erabaki indi-

bidualtzat dugu euskararen hautua baina, inguruak asko baldintzatzen du. Zenbat pertsona behar dira leiho bati begira herri oso bat leiho horri begira jartzeko? (masa kritikoa).

Euskararen hautua pertsonala dela diozue, eta bide hori norberak egin behar duela, baina denen artean eraiki daitekeela. Nola egin daiteke eraikuntza kolektibo hori?

Eraikuntza kolektiboaren inguruan, hizkuntza batzutan hartzen dugu gauza isolatua bezala pertsona baten bizitzan. Imaginatu rubik kubo bat, kolorez beteta. Kolore bateko aurpegia lortzeko, beste kolore guztiak mugitu behar dituzu eta horixe

gertatzen da hizkuntza ohiturekin, aldaketa lortzeko, pertsona horren beste arloetan eragin behar dela eta hizkuntzak zer nolako lotura emozionalak dituen pertsona horrekiko kontziente bihurtu. Honek taldean eragiten du, taldeak honetan eragiten duen bezalaxe.

Amaitzeko, zer jasoko du zuen ikastarora doanak?

Gure ikastarora datorrenari: goxotasuna, alaitasuna, baikortasuna, elkartasuna, hizkuntza ikusteko betaurreko berriak, lankidetzeta, teknikak, ariketa praktikoak, hausnarketak, ekintzak, eta bizi, sentitu, pentsatu ahal izateko AUKERA eskainiko diogu.



EKARPENAK 4

PORTAERA-ARAZOEI HURBILKETA BAT. NOLA ULERTU, NOLA JOKATU

Daniel Marañon

Psikologo klinikoa

"Aldagai soziofamiliarrekin lotutako nahasteek gora egin dute, eta hor sartuko genituzke portaera-arazoak ere"

'Portaera-arazoei hurbilketa bat. Nola ulertu, nola jokatu' izeneko ikastaroa emango du Daniel Marañon psikologo klinikoa Udako Topaketetan. Antsietateak eta portaera-arazoei gora egin dute adin txikikoen artean. Irakasleek askotan ez dakite nola jokatu egoera horien aurrean, ez dakite nola ulertu edota zelan tratatu portaera-arazoa agertzen duen ikaslea. Horrelako kasuak kudeatzeko hainbat gako eskaintzen saiatuko da Marañon ikastaroan.

Portaera-arazoak dituzten haur eta nerabeen kopuruak gora egin du. Zein da gaur egungo errealitatea? Euskal Herriko egoeraren ikuspegi orokor bat ematerik izango zenuke? Psikologiaren arloan, soziologian gertatzen denaren kontrara, ez dago teoria objektiborik. Beraz, gai bera segun eta zein ertzetatik aztertzen den, era baterako edo besteko emaitzak eman ditzake. Psikologoek eta psikoterapeutek ikuspegitik, testuinguruarekin erlazioaturiko aldagai dezente transformatu egin direla ari gara ikusten, batez ere, familiarekin, bikote-harremanekin eta irakaskuntzarekin erlazioaturiko aldagaiak. Orokorrean hitz eginda, antzematen da hezteko modua aldatu egin dela, eta eredu autoritario batetik eredu arduragabe batera igaro gara. Hezteko modu hori zuzenean dago erlazioaturiko eskoletan ikusten ari garen portaera-arazoen igoerarekin. Eta eskoletan bakarrik ez, osasun mentaleko zentroetan eta kabinetee-tan ere egoera hori oso nabarmena ari

da izaten. Estatu mailan egin diren ikerketek ere argi erakusten dute garapenarekin loturiko nahasteak —autismoa, psikosia...— mantendu egin direla edota zertxobait behera egin dutela. Gauza bera gertatzen da adimen atzerapenarekin loturiko gaitzekin ere. Bi kasu horietan aldagai biologikoen pisu handia hartzen dute, baina aldagai soziofamiliarrekin lotutako nahasteek gora egin dute, eta hor sartuko genituzke portaera-arazoak ere.

Ikerketa horren arabera, familiak eragin zuzena du portaera-arazoen hazkunde horretan. Baina ez naiz ari familia egitura berriei, izan ere, azterketa horren arabera familien osakerak —homoparentalak, monoparentalak, berezitakoak...— ez dauka zerikusirik portaera-arazoei, bai ordea, familia horietan ematen den heziketa-motak; eta horrekin batera ikusi da bikote barruko arazoei ere eragin zuzena dutela seme-alabek izan ditzaketen portaera-arazoetan. Alegia, ikerketan arabera, bikoteko



arazoez kutsatu egiten dute haurren garapena.

Horri guztiari beste aldagai bat ere erantsi behar zaio portaera-arazoez ulertzeko. Izan ere, arazo mota horiek erakusten dituzten ikasle gehienek bi faktore izan ohi dituzte: bate-tik, afektu oso baxua haurtzaroan; eta bestetik, sostengu edo kontrol txikia familietan. Aipatutako aldagai guztiak batuz gero, egoera axolagabe batez ariko ginateke hizketan, eta hori bonba atomiko bilaka daiteke nerabezaroan edota aurrenerabeza-roan.

Lehen familiek euren gain hartzen zituzten zenbait ardura eta egiteko eskolen eta irakasleen gain delegatu direla esango zenuke?

Bai, delegatu egin da, eta irakasleen kexa asko hortik datoz. Haien ustez, azentua eskolarengan jartzen da, baina eragin-ahalmen askoz ere handiagoa dago familietan. Zenbait psikologok hitz egiten duten moduan, nik ere familia barruko arau txikiez eta arau handiez mintzatu behar duguna uste

dit. Arau handiak lirateke negoziatu ezin diren horiek. Adibidez, guraso bat alabarekin kaletik joan daiteke eta araua izan daiteke, bidea beti gurasoari eskutik helduta eta semaforoa berdean dela igaro behar duela. Hori arau handi bat da, eta beraz, ezin da umearekin negoziatu, ezin dugu esan: “Gaur lehenengo platera, bigarrena eta postrea hartu duzunez, gaur benga... zuk erabaki zelan gurutzatzen duzun errepidea”. Ez, hori ezin da negoziatu. Negoziatu daitezkeenak arau txikiak dira: zenbat jan, zein arropa jantzi, telebista gehiago edo gutxiago ikusi... Arau horiek negoziatu ahal dira. Gaur egun, ordea, zer ari da gertatzen? Askotan arau handiak ere negoziatzen hasi gara. Horri gehitzen badiogu ardurak delegatzen dituen familia bat, edota bikoteko arazoez seme-alabengana proiektatzen dituen... bada, uneren batean eztanda egingo duen bonba bat ari gara fabrikatzen. Mundu klinikotik ikusten duguna da, normalki, familiako heziketa-erak harreman zuzena daukala seme-alaben

garapenean eta jokabide arazoetan. Oso arraroa da kontsultara etortzea nerabe bat edo aurrenerabe bat jokabide nahaste handi batekin non familian ez dagoen inolako arazorik, gurasoen artean bikote erlazio oso sendoa dagoen, heziketa-eredu demokratiko batekin zeinetan afektu handia ematen zaion umeari, baina aldi berean sostengatuta edo kontrolatuta dagoen...

Haurtzaroan garatzen den atxikimendu egoki bat da, hortaz, gakoa?

Haurraren garapenean zehar badaukagu ikasgai bat: zelan mantendu gurasoekiko atxikimendu hori, zelan mantendu lotura hori, baina era berean, zelan lortu autonomia. Orduan, garapen hori dantza edo balseo baten modukoa da, mendekotasunaren eta autonomiaren artean: nola sentitu naitekeen aldi berean nire familiarengandik gertu, baina neu izanik, ito gabe. Umeak, apurka-apurka, bere garapenean zehar hortxe dauka ikasgaia: familiarengandik gertu sentitzen da, lotura bat dauka, atxikimendu bat

dauka; baina era berean autonomia da eta independentea. Ezin da orokortu, baina sarri, portaera-arazoak daudenean, atxikimenduaren inguruko arazoren bat egon ohi da: haurrak helduarekin oso gertuko erlazioa dauka, baina ezin da separatu, ezin da banatu. Derrigorrez, beti oso gertu dauka egon beharra gurasoekin. Hori haurtzaroan, eta LHko lehen urteetan uler daiteke, baina haurra handitzen doan eran, arazoaren iturburu izan daiteke, umea ez delako gai modu autonomoan jarduteko, eta independentzia hori behar duenean modu bortitzean jardun daitekeelako, haserrealdien bidetik. Kasu horietan, askotan, familia lagundu behar izaten da, gerta daitekeelako gurasoren bat seme-alabak bere euskarri gisa erabiltzen aritzea, edota helduen arazoak umeetara proiektatzea. Gaitza izan arren, hori guztia egoki kudeatu behar da seme-alabek garapen egokia izango badute.

Hortaz, umearentzat bere autonomia garatzeko modua izan daiteke portaera-arazoa?

Gurasoen loturatik askatu behar du, eta banaketa prozesu hori ez bada egoki egin, zelan egiten da? Bada, apurtzen. Kale-borroka moduko bat da: umeak lubaki bat egiten du, adibidez, etxean, pasabidearen erdian. Hori ez da autonomia garatzeko modua, baina gerta liteke ume edo nerabe hori beste era batera aurrera egiteko gai ere ez izatea. Izan ere, sarri, portaera-arazoak depresioan hondoratzea saihesteko ekintza izan ohi dira. Depresioan ez jausteko zer egiten du ume edo nerabe horrek? Talka. Norbaiten aurka egin, eta askotan, modu bortitzean. Helduok ere baditugu erremintak tristuran ez erortzeko eta txarto ez sentitzeko: egin eta egin jarduten dugu, lanean lehenik, gero goaz korrika egitera, gero lagun batekin trago bat hartzera, gero parrandara... gelditzen bagara barruko hutsunarekin edo tristeziarekin konektatzeko beldur garenez, petatxuak jartzen ditugu. Bada, haur eta nerabeek gauza bera egiten dute, baina portaera-arazoen bidez.

Gaur egun antzematen diren portae-

ra-arazo nagusiak zein dira?

Batetik, nahiko berria delako, gurasoen kontrako indarkeria aipatu behar da; bestetik, berriz, hor dago bullying-a ere edota klasean edozein kide matxakatzen jardutea. Horri gehitu geniezaioke klasean ez kontzentratzea, beti arauak apurtzen aritzea edota irakaslea zirikatzea etengabe.

Ume edo nerabe horiek familiatik eskolara doaz. Eta irakasle asko nahiko kexu dira portaera-arazoekin, galduta sentitzen direlako sarri eta ez dakitelako zer egin.

Bai, hala da. Eta nik nahiko errealitate ezkorra ikusten dut. Ez dago pautarik. Irakasleek eta aholkulariek jarraibide zehatzak eskatzen dizkigute psikologooi, baina guri horrek beldur handia eragiten digu, guk ez daukagulako barita magikorik. Adin batetik aurrera, ikasleekin zuzenean irakasleak egin dezakeena gutxi da. Nire ustez, hobekuntza bidea gehiago enfokatu behar genuke irakaslearen lan pertsonaletik abiatuta. Nola kudeatu ditzakete irakasleek egoera horiek euren buruak ardatz hartuta? Horretan jarri behar dugu begirada. Izan ere, geure buruarekin egoera horiek ondo kudeatzea lortzen badugu, akaso ikasleekin ere zerbait lortuko dugu, gainontzean ez. Irakaslearen eragin-ahalmena baxua da, hasteko eta behin, irakasle horrek hainbat eduki eman behar dituelako eta klasean ez dagoela talde-terapia bat egiteko.

Beraz, egoera horiek kudeatzeko irakasleak zer egin dezakeen? Bada, nire ustez bere autoezagutzatik etor daiteke soluziobidea. Zelan tratatzen dut ikasle hau? Zer sentitzen dut ikasle mota jakin bat klasean tokatzen zaidanean? Emozioei ere tokia egiten diet? Emaitza akademikoei zer nolako garrantzia ematen diet? Izan ere, ikerketek erakusten dute, normalean klasean arazoak ematen dituen ikasle horrek begirada negatiboa jasotzen duela irakasleen aldetik, kritikak egiten zaizkiola eta deskalifikatua izan ohi dela. Baina horrek irakaslea bere jarreran irmotu besterik ez du egiten eta sorgin-gurpil batean sartzen gara. Beraz, nola eman diezaiokegu horri buelta? Gai ote

gara ikasle horren alderdi positiboak ere ikusteko eta horiek bistartzeko? Zein gaitasun ditu? Zelan engantxatu dezaket klasera? Nola gara nezake lotura bat ikasle horrekin? Badakigu gaur egungo hezkuntza-sistema adimen akademikoan dagoela oinarrিতuta. Hori ikasleentzat presio izugarri handia da, zera esan nahi baitu: “Ez bazara pasatzen eskolak jartzen dizun inbutu honetatik, etorkizunean porrota besterik ez duzu izango”. Hori sekulako presioa da bai ikasleentzat eta baita haien familientzat ere. Nire ustez ezinbestekoa da irakasleak ere presio horretaz jabetzea, eta ikasle guztiengana iristeko ahalegina egitea haiekin lotura sendo bat eraikitzen saiatuz.

Eta irakasleek lanketa pertsonal hori egiteko edota ikasleekin klasean lotura sendotzeko zein baliabide izan ditzakete?

Terapiatik hartutako zenbait tresna erabil ditzake eta ni horiek erakusten saiatuko naiz ikastaroan. Nire egitekoa da irakasleekin lantzea errealitatea ez dela errealitate gordin eta bakar bat, baizik eta errealitateak hamaika ertz izan ditzakeela eta ezberdina izan daitekeela segun eta ikaslearekiko harreman hori zelan enfokatzen den. Analizatu behar dugu errealitate baten inguruan zernolako barne-hizketa garatzen dugun geure buruarekin. Adibidez, ikasle bat buelta eman eta atzekoarekin hasten da berbetan, guri burura etor dakiguke “beti berdin ari dela, eta ni izorratzeko egiten duela hori”. Gerta daiteke, ordea, ikasle horrek etxean bestelako arazo bat izatea eta burua ez edukitzea ni esaten ari naizen horri arreta jartzeko. Beraz, irakasle bezala ohartu behar dugu segur aski ikasle hori ez dela ari edukitzen portaera hori ni izorratu nahi nauelako, baizik eta beste arrazoiren bat egongo dela atzean. Beraz, geure buruarekin daukagun barne-hizketa hori aldatzen badugu, enpatia bat garatzea lor dezakegu: “Buelta eman du, eta atzeko kidearekin hizketan hasi da, baina igual ez dago nire kontra”. Eta, akaso, klase amaieran bost minutu har ditzakegu ikasle horrekin hitz egiteko.

REGGIO EMILIAra

BIDAIA

Gutxieneko taldea osatu da.
Bidaia egingo denez, izena emateko aukera egongo da tokia dagoen artean.



Egitaraua

Urriak 10, asteartea
Ezker Herriko Itasariko bidaiak.

Urriak 11, asteazkena
Aurkezpenak, formazioa eta eskolatera bidaiak.

Urriak 12, osteguna
Aurkezpenak, formazioa eta eskolatera bidaiak.

Urriak 13, ostirala
Aurkezpenak, formazioa eta eskolatera bidaiak.

Urriak 14, larunbata
Eskola Ezker Herriko bidaiak.

Italiako REGGIO EMILIA hirian hamarkadetan garatzen ari diren hezkuntza-proiektu auzerakoi eta emankorreko espezializazio bidaiak pedagogikoki antolatuta da HIK Hasiak. 0-3ko zerbitzuak eta 3-6 urte bitartekoaren kudeaketa espezializazio aukera izango da. 3-11 urte bitartekoaren Loris Malaguzzi eskola ere bidaituko da.



Loris Malaguzzi (1920-1994)

- Loris Malaguzzi pedagogoki urte asko aritu zen Reggio Emiliako 0-6 urte bitarteko haurren zaintza eta hezkuntza ikertzen, esperimentatzen eta garatzen hango hezitzaileekin, gurasoekin eta haurrekin.
- Berak zioen, haurrek da guztiaren erdigune, eta herri osoak egon behar du inplikatu haurren heziketan.
- Bestalde, haurrek ikasiko eta garatzeko ehun hizkuntza dituela zioen, eta, hizkuntza horiek ahalki eta hobekien garatzeko aukera izan behar duela: gogutia, hizkuntza, artea, hantat espresio mota, famametak, eta abar.

BIDAIA aukerak

1. Bidaia bakiltzarenagatik eskatzen dena..... 775euro
Reggio Emiliako bidaia eta formazioa HIK Hasiari bidaiak egingo dira. Beste guztiak, norberak bere kontura egingo dira (bidaiak, hotela...).

2. Guztia HIK Hasiak antolatuta..... 1.475 euro
HIK Hasiak 1.475 euro ordainduta, bidaiak (Bilbo-Bologna eta Milan hegoaldekoak + Bologna- eta Milan- Reggio Emilia autobusek), hotela (300 eta gora), formazioak, bidaiak, itzulpena eta asagurua sartuta dira.

HIK Hasiaren herpebidetara urteko 50 euroko herpebidetza murriztu egingo da.

Oharra: antolatzaileen esku gertatzen da programa hori behar diren arazoak egitea.



Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus helbidean

GALDEIDAZU

Zer ahozko baliabide ditu irakasleak eskura haur-literatura lantzeko?

Haur-literatura lantzeko, hamaika baliabide izan ditzakete hezitzaileek, baina, horiek azaltzen hasi aurretik, komeni da kontuan izatea literaturak haurrentzat duen garrantzia. Izan ere, literaturak umeari mundua ulertzeko modu bat eskaintzen dio, baina norberarengandik abiatuta, umearen *Ni*-a sorburu hartuta, alegia. Kontua da, ume txikiez mintzo garenean, literatura jaso ahal izateko, bitartekari bat behar dela. Literatura umearen *Ni* hori landu eta garatzeko bitarteko aparta dela iruditzen zait, baina, betiere, bitartekari baten laguntzarekin. Beraz, zentzu horretan, helduaren rola izugarri garrantzitsua da, eta presentzia itzela hartzen dute hor bitartekari horren gorputzak eta, bereziki, ahotsak. Bitartekariak gidatzen du, esaten du, ahotsa jartzen du, hitzei esanahia ematen die... Eta jokoan sartzen da hor pertsonen aldartea, subjektibotasuna, pertzepzioa, interpretazioa, jabekuntza... Testuinguru horretan jarri, eta ekin egin behar da: hartu liburua, albuma, abestiak, poemak... eta ekin. Izan ere, baliabide horiek hor daude, baina umeak, berak bakarrik, txikitan, ezin ditu erabili; hortaz, guk, heldu gisa eta bitartekari gisa, zer egin dezakegu horiekin? Bada, ahotsera ekar ditzakegu, eta zure eta nire arteko lotura, eta hemen eta orain gertatzen ari denarena egin. Hori guztia 0-6 urte bitarteko umeekin



YOLANDA ARRIETA
IDAZLEA



landu daiteke, oraindik helduen kode idatzia ezagutzen ez duten haurrekin. Beraz, orain azaltzen ari naizen hau guztia hizkuntza kodifikatu hori sortu aurreko zerbait litzateke. Umeak zera sentitu behar du: “Hementxe eta oraintxe bertan, zer ari da gertatzen nire inguruan? Zer ari da gertatzen nirekin?”.

Hik Hasiren Udako Topaketan emango dudan ikastaroaren izenburuan iradokitzen den bezala –“Aho bete amets: haur-literaturaren ahozko baliabideak (0-6)”–, nik bi aldarri nagusi egin nahiko nituzke: batetik, amets egiteko haurrak eta pertsonok dugun eskubidearen aldarria; eta, bestetik, ahotsak eta haren bidez transmititzen denak izan dezaketen indarraren aldarria.

Amets hitzak, besteak beste, hiru esanahi biltzen ditu bere baitan. Bat, lotan gaudelarik bizi izandako gertaera, bizipen eta esperientzia sensoriala: *amets egiten dut*. Bi, asmo edo ilusio batekin loturikoa: *handitan idazle izatearekin egiten dut amets*. Hiru, desira, nahia: *umea zoriontsu izatea da gure ametsa*. Hiru adierok estuki loturik daude, ordea. Are gehiago, sustrai berbera dutela esango nuke: lotako ametsak gure asmoen isla dira sarri, eta gerorako plan asko unean uneko bulka-dei erantzunez jartzen dira martxan; bulkada hori, hamarretik bederatzitan, irudi bati loturiko gurari bat izan

ohi da. Beraz, ametsa ez da mundutik at egoteko modu bat. Mundua atzemateko, irudikatze eta izendatzeko modu bat baizik. Ametsa gure barruko errealtate ikusezina eta kanpoko errealtate fisikoa uztartzeko erabiltzen dugun zubia da. Ametsari esker ematen diogu esanahia bizi dugunari. Ametsean hasten da irudimena bizia hartzen, sinboloa forma hartzen, hitza zentzua hartzen. Ametsa da hasiera. Hizkuntzaren hasiera. Eta zer dago hizkuntzaren hasieran? Hotsa, soinua, arnasa, usaina, fereka, taupada, laztana eta begirada. Hizkuntzaren hasieran, poesia dago.

Ahotsa, berriz, umearen lehen liburua da. 2, 3, 4 urterekin... baina lehenago ere bai, jaioberritan edo jaio aurretik ere, umeari hitz egiten diogunean, gu ari gatzazkio mundua esplikatzen. Hor hasten da umea irakurtzen, heldua bitartekari duela. Horregatik egiten dut ahotsaren aldeko aldarrikapena, iruditzen zaidalako berriro ere ahotsa ekarri behar dugula hitza. Hitzak bizirik ez badauka, letra hutsa da, aseptikoa. Ahotsak ematen dio emozioa, pertzepzioa, irudia... Eta horrek guztiak indarra hartzen du ume txikia aurrean dugunean, eta harekin elkarrekintzan, komunikatzen... hasten garenean. Ahotsaren bitartez, berriro ere umeari begiratzea eta hitzaren musika transmititzea aldarrikatzen dut: hitzaren usaina, hitzaren gustua, hitzaren jolasa... Eta, zergatik ahotsa? Ahotsa baliabide organikoa delako, gorputzaren baliabide bat delako, eta umeak gorputzetik bizi duelako dena. Beraz, helduak, ahotsaren bitartez, umeari mundua interpretatzen laguntzen dio. Ahotsa tresna paregabea da, mundua izendatu ahala geure burua eta ingurua ezagutzeko. Ahotsa da habia, kuma, sehaska. Ahotsa da hizkuntzaren magala, motorra, emozioa. Ahotsaren bitartez hartzen duelako hitzak indarra. Hitzak, ahotsa eraman da, sendatu egin dezake, lasaitu egin dezake, umorez alda gaitzake, barregura eman diezaguke, lotarako presta gaitzake... Horra hor hitzaren balioa... Zenbat gauzatarako balio duen... Baina esan gabe zehazki

zertarako den, baizik eta zeharka. Izan ere, literatura, berez, hori da: zeharkako bide bat, mundua eta norbera hobeto ulertzeko eta interpretatzeko.

Ahozko literatura pertsonaren lehenengo etxea da, habia: zu eta ni, hementxe eta oraintxe, txikitik txikira, begitik begira, azaletik azalera. Intimitate-gunea. Txikitik txikirako distantzia laburra da oso. Eta abiadura txikia eskatzen du. Dagoenetik uea eraikitzeke. Erantzunak jasotzeko. Jakintzat ezer ez emateke. Garai zoro eta frenetikoak bizi ditugu. Aseezinak, estuak, zorrotzak. Dena ondo egin behar da. Ahalik eta azkarren. Lehenengoa izateko. Besteak baino apur bat gehiago izateko. Noiz arte, ordea? Ez al da, jada, dagoenari berriro begiratzeko uea iritsi?

Aipatutako guztiagatik, hiru ataletan banatuta lan egitea proposatzen dut:

- 0-2: oinarriarekin hasiko ginateteke, haur-literaturaren sorburura joateko eta handik abiatzeko, hitzaren balio guztia erabiliz eta zentzuen bidezko hizkerari garrantzia emanez. Etapa honetako lanketaren barnean, haur-hiztegi bat osatuko dugu lehenik: onomatopeiak, haur-hizkerako berbak, bestelako baliabideak... Eta jabetuko gara horiek guztiak zer nolako baliabide literarioak diren. Eta, pixkanaka, umearentzat proposak diren diskurtso narratiboak eta lirikoak osatuz joango gara horiekin, kantatzeko moduko testuak sortuz. Tradiziotik ikasi ditugun batzuk hartuko ditugu, hitzak aldatuko dizkiegu... lehen ahozko poesia, bestelako kantuak, eskuarekin jolastekoak, magalekoak, dona-dona egiteko erabiltzekoak, lo eginaraztekoak... Balio diguna hartuko dugu tradizioetik: egiturak, errimak, erritmoak, doinuak... Baina, horren gainean, inprobisatu ere egingo dugu. Umearen eguneroko ekintzak ere —jaiki, jantzi, bainatu, bazkaldu... — baliatuko ditugu berriak asmatzeko, apainduta, osatuta, errepikapenak erabiliz, onomatopeiak sartuz, haur-hizkerako hitzen bat baliatuz...

- 2-4: aurreko etapa ahaztu gabe,

Literaturak umeari mundua ulertzeko modu bat eskaintzen dio, baina norberarengandik abiatuta, umearen *Ni*-a sorburu hartuta, alegia. Kontua da, ume txikiez mintzo garenean, literatura jaso ahal izateko, bitartekari bat behar dela. Literatura umearen *Ni* hori landu eta garatzeko bitarteko aparta dela iruditzen zait, baina, betiere, bitartekari baten laguntzarekin. Beraz, zentzu horretan, helduaren rola izugarri garrantzitsua da, eta presentzia itzela hartzen dute hor bitartekari horren gorputzak eta, bereziki, ahotsak.

adin honetara egokituta, hiztegia berrosatuko dugu lehenik. Gero, adin tarte horretako umeekin aritzeko, bi adar zabalduko ditugu: batetik, haur-poesia; eta bestetik, album irudizatuak —mutuak nahiz mutuak ez direnak—. Baina zer egin, adibidez, olerki horiekin? Olerki horiek gorputzera ekarri behar ditugu. 0-2 adin-tartean, eskuari eragiten genion, edota txalo egiten genuen; adin-tarte honetan, zer gehiago egin dezakegu gorputz-adierazpena erabiliz olerki bat transmititzeko? Erakusteko? Eta

Geroz baino geroz estimulu gehiagorekin bizi den gizarte honetan, haurrei dena “egina” eskaintzen zaien honetan, eten bat eginez, irudimenari ate bat zabaltzeko deia ere egin nahi nuke haur-literaturaren eskutik. Izan ere, irudimena hitzak irudira garamatza. Lehen irudira. Zentzuei eta emozioari esker barru-barruan, ariman, lehen irudia sortzeko dugun berezko ahalmenera. Ahalmen horri esker hasten da irudien makina martxan. Irudimena irudiak sortzeko ahalmena da. Iraganetik askatu, errealitatetik atera eta etorkizunerantz bultzatzen gaituen ahalmena. Nola aurreikusi, imajinatu gabe?

umeekin partekatze? Lau elementu sartuko dira beti jokoan: “Zu, ni, gorputza eta ahotsa”. Esate baterako, ‘euria’ adierazteko, goitik beherako keinu bat egin daiteke eskuko hatzekin, eta haurrei errepikaraz dakieke hori. Zergatik horrela? Hitza askoz ere errazago gogoratzen delako gorputz-adierazpen batekin edo keinu batekin lotuta dagoenean.

- 4-6: adin-tarte honetako lanetan, lehenik eta behin, aurrez egindakoa jasoko eta gordeko dugu, eta gauza berri bat sortuko eta garatuko dugu horren gainean. Edozein kasutan, errepikapena adin guztietan erabiliko dugu, memoria lantzeko modu bat delako, eta memoriak beti dakarrelako irudimena. Adin-tarte horretan ere, olerkiak eta albumak erabiliko ditugu, eta, horiek transmititzeko, dramatizazioa jorratuko dugu, eta antzerkia landuko dugu baliabide moduan, ahozko kontakizunera eramanda.

Horrekin guztiarekin, funtsean, nik nahi dudana da haurri literaturako oinarriak bermatzea, gerora, bere bakarkako irakurketa (kodifikatua) hasten duenean, zimendu sendoak izan ditzan. Era berean, eten bat egin nahi dut gaur egun bizi dugun eguneroko abiadura frenetikoan, haur-literaturaren bitartez tarte bat hartzeko umeekin egoteko: umea, heldua eta eskuartean daukagun fikzioa; betiere, ahotsarekin presentzia emanez eta orain eta hemen egoteko espazioak sortuz. Izan ere, 0-6 adin-tartean, gauzak kontzeptutik errealitate konkretura ekartzeko modua da ahotsa. Eta elkarrekintzarako bidea irekitzen du, intimitaterakoa, isiltasunerakoa, edertasunerakoa... Eta horrek guztiak harridura sortzen du, arreta, lilura... Azken batean, horrenbeste aldiz errepikatu dugun hitzaren magia aurkitzera baikaramatza ahotsak.

Geroz baino geroz estimulu gehiagorekin bizi den gizarte honetan, haurrei dena “egina” eskaintzen zaien honetan, eten bat eginez, irudimenari ate bat zabaltzeko deia ere egin nahi nuke haur-literaturaren eskutik. Izan ere, irudimena hitzak irudira garamatza. Lehen irudira. Zentzuei eta emozioari esker

barru-barruan, ariman, lehen irudia sortzeko dugun berezko ahalmenera. Ahalmen horri esker hasten da irudien makina martxan. Irudimena irudiak sortzeko ahalmena da. Iraganetik askatu, errealitatetik atera eta etorkizunerantz bultzatzen gaituen ahalmena. Nola aurreikusi, imajinatu gabe? Irudimena sortzen dituen lehen barne-irudiak bi hariri estuki loturik daude. Zer hari dira horiek? Zentzumenak eta emozioak. Aldi berean, bai zentzumenak, bai emozioak, erabat konektaturik daude aurretiaz gorderik dugun bizipen-biltegiarekin: nolako eskarmentua izan dugun, halako esanahia emango diogu haien bidez jasotako informazio berriari. Beste era batera esanda: aurretiaz zer arrasto dugun, halakoa izango da gure pertzepzioa, eta halakoxea izango da pertzepzio hori izendatzeko erabiliko dugun hitzaren esanahia. Horrenbestez, bada, hau baieztatu dezakegu zalantzarik gabe: irudimena iraganetik eta orainetik askatzen gaitu geroa irudikatze, baina oroimena du sustrai, langai eta elikagai. Baina, une honetara iritsita, galdetzen diot neure buruari: zein da haur txikien aurreneko langai hori? Noiz sortzen da oroimena? Hizkuntzarekin batera? Noiz hasten da guztiarekin lotzen gaituen aurre-hizkuntza afektibo-sentsoriala indarra hartzen? Eta nolakoak dira gure etxeetako espazioak? Gure eskoletakoak? Aisialdikoak? Hizkuntza afektibo-sentsorial hori lantzeko tarterik badute? Poetikarik badute?

Lekuak sortu ditugu berritasunaren izenean. Lekuak bete behar ditugu, orain, gure egunerokotasunean bizitzaren poetika txertatzeko: etxean, eskolan, auzoan, plazan, kultura-etxean, bus-geltokian nahiz parkean. Egunerokoan zentzuen bidez bizi, etenik gabe sentsazio berri bila ibili beharrik ez izateko. Haurpoesia ez da irtenbide bakarra, ez da konponbide osoa, ez da panazea. Ahozko haurpoesia berreskuratzea, ordea, geure hasierako izatearen zati bat berreskuratzea da: geure ahotsa. Mintzoaren sustraia kantuan omen dago, eta munduaren galera musikaltasunaren galeratik omen dator. Has gaitzen, bada, kantuan berriro.

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN 22 BERRAZTEA 11

Hazi Hezi



2017an **Hazi Hezi** haziera eta heziketa aldizkariaren harpidedun egitera gonbidatzen zaitugu 20 euroren truke (urtean 4 aldizkari)

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN 22 BERRAZTEA 11

Hazi Hezi



Lehen Elkakadura

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN
"Kaurri belburrik ez dione izan behar guzuzen ezta belburria eman ere"

ICERIKATZEA
Eider Rodriguez

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN 22 BERRAZTEA 11

Hazi Hezi



2017 Herri hezitzaileak

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN
"Helduoi sivetzairei zaigu boterea erabil dezakegula hartzeko"

ICERIKATZEA
Mantzillazioa:
Zer proposatzen dute alderdiak?

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN 22 BERRAZTEA 11

Hazi Hezi



2017 Mantzillazioa Norvegia eta Islandian

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIAN
"Gure erabakiak hartzeko ardura urtean zehar gatazkiekin partatu"

ICERIKATZEA
Bernardo Itxaga

ATZEKO ATETIK



ESTIMULAZIO AFEKTIBOA

PELLO AÑORGA

ESTIMULAZIO AFEKTIBOA

Urte hauetan guztietan (hogeita hamar urte baino gehiago badira) era guztietako ikastetxetan egoteko zoria izan dut, dela ipuin-kontalari modura, dela idazle modura. Saio ugaritan izan dut aukera harremanak egiteko eredu pedagogiko “eraldatzaileak” jasotzen dituzten ikasleekin eta eredu pedagogiko “ez hain eraldatzaileak” jasotzen dituztenekin: etorkinekin, herri txiki zein handietakoekin, hainbat gizarte-klasetakoekin..., eta esan behar dut ustekabe galantak izan ditudala. Gertatu izan zait eredu pedagogiko “eraldatzaileak” zituzten ikastetxeetako ikasleek erakustea, batzuetan, jarrera hotza eta aseptikoa; eta, alderantziz, metodo “ez hain eraldatzaileetako” ikasleek erakustea jarrera aparta, hots, eredugarria. Horregatik, behin baino gehiagotan galdetu izan diot neure buruari ea ba ote dagoen beste zerbait eredu pedagogikoen gainetik haurren jarrera baldintzatzen duena. Urte batzuk badira galdera horrekin bueltaka nabilela, eta, jada, esan behar dut, urteen poderioz, ondorio batzuetara iritsi naizela. Bestek beste, hauxe esan dezaket nire lanaren testigantza gisa: eredu guztien gainetik, irakasleen inplikazio emozionala erabakigarria da haurren jarreretan. Eta zer esan nahi dut inplikazio emozionala kontzeptuarekin? Bada, hein handi batean, irakasleek pathosa

(mundu afektiboa, sentikorra...) garatua izatea, mundu arrazionalaz zein kognitiboaz gain. Sarritan konturatu izan bainaiz, irakasleak emozionalki inplikatzeko badira, edota, beste hitz batzuetan esanda, gogoia eta gustua erakusten badute (esan nahi da jarrera enpatikoa), askoz ere pasio handiagoz bizitzen dutela ikasleek proposatzen zaien jardura, eta, horren ondorioz, beste jarrera bat erakusten dutela, askoz ere positiboagoa. Gainera, sentimenduak ere gehiago partekatzen dituztenez, gehiago inplikatzeko dira, eta gehiago balioesten dute eskaintzen zaiena: arreta handiagoa jartzen dute, patxada handiagoa agertzen, galderak egiteko irrika erakusten, jakin-mina azaltzen, lilura, harridura, umorea, enpatia... zeren, autonomia eta iniziatiba sozialaz gain, gaitasun digitalaz eta zientzietarako gaitasunaz bereiz, ESTIMULAZIO AFEKTIBOA baitute garatua. Hauxe da galdera: zer egiten du irakasleak horrelako estimulazio afektiboa edukitzeko ikasleek? Txillida eskultoreak esaten zuen txikitik izan zituela irakasle asko, baina maisu gutxi. Eta zera zioskun: irakasle gehienek erakutsi egiten ziotela soilik; aldiz, benetako maisuek harremanetan jartzen zutela bizitzarekin. Bada, nik ere gauza bera esan dezaket txikitik izan nituen irakasleez. Denak ziren aldarte berekoak,

materia berekoak ez esateagatik, hots, grisekoak. Alabaina, ezagutu nuen maisurik emozioak partekatzen zituena. Eskerrak! Hark pasadizoak kontatzen zizkigun, eta nireak izango balira bezala bizitzen nituen; halako eran, ezen kontzepturik abstraktueneke ere zentzua baitzuten eta ulermen izugarri errazten baitzuten. Eta ni, pozik. Irakasle hark, agian, ez zituen oso metodo “eraldatzaileak” erabiliko, baina niretzat, behinik behin, huraxe izan zen eraldatzaileena: erakustez gain, bizi egiten zuen esaten zuena, programazio guztien gainetik. Hark bizi, eta guk (nik) ere bizi, enpatia lagun. Eta gaur egun ere berdin pentsatzen dut. Zeren, horrelako irakasle bat aurkitzen duzun bakoitzean, arnasa hartzen duzu. Joaten zara ikastetxe batera, dela idazle modura edo dela ipuin-kontalari modura, eta ziur zaude inplikatzeko dela. Badakizu kontatzen ari zarena ikasleekin batera biziko duela. Eta, orduan, gauza miragarri bat gertatzen da: bat-batean, bihotzaren begia zabaltzen zaizu, eta, bat-batean, edermintzen zara, buruak ulertzen ez dituen arazoak direla medio. Haurrek esaten dizute gustura egon direla, eta zuk erantzuten diezu: ni ere bai zuekin. Eta eskerrak ematen dizkiezu hurrei eta, batez ere, irakasleari, espazioa eta denbora hain ondo bizi, partekatu eta zaintzeagatik.

NUR

eta
Herensugearen Tenplua



**Zinemetan
lehen aldiz!**
ekainaren 2tik aurrera

ZUZENDARIA: Aneke Berruete; GIDAK: Toñi Martínez de Lencina / Enrique Olivares; MUSIKA: Jaume Sorribena
ANIMAZIO ZUZENDARIA: Inés Zamarog; ARGAZKI ZUZENDARIA: Eduardo Dávila; STORY BOARD: José Ángel Latorre



BARTON FILMS



ehbildu

Foroak, ikasleak, irakasleak eta irakasleak
GUE/INGL
www.gueingl.eu

Nazioarteko Hezkuntza Konferentzia

EUROPAKO HEZKUNTZA SYSTEMAK EZAGUTZEN

IRAILAK 22
IRATZAR ARETOA
ZUATZU - DONOSTIA

Parte hartuko duten herrialdeak:
FINLANDIA · DANIMARKA
SUEDIA · HOLANDA